


Berrigara

BERGARA • ELGETA • ANTZUOLA / Egubakoitza / 2003ko ekainaren 13a / 544. zenbakia

BIHAR,



OSATUTA

Bihar, zapatua, 12:00etan osatuko dute udalbatza berria

Barruan,  gehigarria

BERRIAK

Gertu-gertuko informazioa

Egunero,
14:30ean eta 15:30ean
20:00etan, 21:00etan, 22:00etan eta 23:00etan

Aurkezleak:
Gorka Etxabe
Maidor Osa



**Ikusiko
duzu!**



Jardun Jaialdia 03

Ekainaren 20an 19:30ean Zabalotegin

Txistek
Sketxak
Koreografiak
Bertso eskolako helduen eta umeen saioa
Trikitixa eskolako emanaldia
Jardunen ereserkiaren aurkezpena



Zatoz!

ATREBENTZIAEZPADA/ Tabernarixek jaixen errepetiziñua antolatu dabe. Ze pentsatzen jatzu?



JOSE MARIA GOT
31 urte



FLORITA IZUSKIZA
76 urte



AINARA MANSO
20 urte



SANDRA SÁNCHEZ
17 urte



JUAN PINEDA
61 urte



ROSARIO MUÑOZ
58 urte

Ondo pentsatzen jat. Hala jentia kalera urten eta zer ikusi edo zer egin badaukalako. Gaiñera, girua beheera etorritta dago, eta hola kanpoko jentia be igoal etortzera animatuko da.

Ondo pentsatzen jat. Bes-tela jentia kanpora juten da. Eta gauzak antolatuta herritarrek bertan geldituko die, eta kanpokuak be igoal etorri egingo die. Bes-tela ez dago zer egiñik.

Helburuan arabera. Tabernarixek dirua etaratzeko gauza bat bakarrik bada, ez jat oso ondo pentsatzen idea hori. Ez dot uste motiborik daukenik jaixak errepikatze.

Oso ondo pentsatzen jat. Tabernarixendako ondo dago, eta herritarrendako be bai. Zapatuetan ez da ezer egoten herrixan, eta hola, behintzat, badago zer ikusi.

Oso ondo pentsatzen jat. Gaiñera, ez naiz jaixetan egon, eta hola badaukat aitzakixa urtetzeko. Bestela be, jendt gaztiendako gauzak egon bihar diela uste dot.

Ba, neska, ez dakit zer esan. Gaizki be ez jat pentsatzen errepikatzia. Batez be, jende gaztiangan pentsatzen, hola badauke nun ibili. Astokerixarik egitten ez daben bittartian...

TXALOAK ETATXISTUAK



TXISTUAK ITSUSIA ETA ARRISKUTSUA Irakurle batek esan duenez, Seminarioan dagoen pilotalekuaren pareta arriskutsu dago ondoko eraikina bota zutenetik. Haren ustez, ez du euskarri nahikorik, eta han ibiltzen diren umeak kontuan izanda, zerbait egin behariko litzatekeela dio. Horrez gain, ingurunea itsusi ere badagoela pentsatzen du eta txukuntzea ondo egongo litzatekeela. /M.B.

ETABARRUAN...

- | | | |
|---|---|--|
| ASTEKO BERRIAK / 6 | KIROLAK / 11 | KULTURA / 14 |
| Jaien errepikapena | Gorlako Igoera zapatuan | Literatura Lehiaketa |
| Tabernariek hainbat ekitaldi antolatu ditu astebururako: Pazzoak errepikatuko ditugu. | Gorlako Auto Igoeraren 13. aldia jokatuko da bihar, zapatua. 60 gidarik hartuko dute parte. | XVIII. Koldo Eleizalde Literatura Lehiaketako sariak banatuko dituzte bihar, zapatua, Zabalotegin. |

ASTEKO DATUA

34


ASTELEHENEAN EGINDAKO TEMPERATURA

Egunotan izugarrizko beroa izan dugu. Luis Mari Agirrek emandako datuen arabera, astelehenean 34 graduko temperatura izan genuen; zapatuan, 32 eta martitzenean, berriz, 33.

BESTEKE SANA

“Jaietan herriko gazte talde guztiak parte har dezaten da gure asmoa; izan ere, Udalak ez du interes berezirik ekitaldi batzuk edo besteak antolatzeko. Arrazoi horregatik, Jai batzordearen atek guztiendako zabalik daude, nahiz eta badauden hainbat gazte talde ekitaldiak euren kasa antolatzen dituztenak. Eta horrek egitaraua hobetzeko balio baldin badu, ongi etorri dira. Nahiz eta animatzen ditudan Jai batzordera batzen, batzordea aberastuko duten ideia eta egitasmo berriak proposatzeko. (...) Oso polita da ikustea nola herritarrek parte hartzen duten jaietan, kaleak alaitasunez jantziz eta egunero estresa albo batera lagata. Dena den, aipatzekoa da, hainbatek kanpoa joateko aprobeztatzen dituztela jai egunok. **VICTORIANO GALLASTEGI / Alkatea**
'Deia' / 03-06-06

BERAIEK DIÑO E / Iñigo Garitano



'Novedade' txarrak

Azken aldiari nobedade txarrak besterik ez dagoela dirudi: Iraken aurkako gerra, *Prestige* aferaren ondorio larriak, Batasunaren ilegalizazioa, ETaren atentatu berria, istripu larriak, ... Eta gure herrira hurbilduz, berriak hain dramatikoak izan gabe, eta arazoan garrantzia eta ondorioak konparatu ezin izanda ere, ez dago etxafuegoak botatzeko arrazoi gehiegirik (jaiak pasa ondoren, are gutxiago): Debagoienako beste herriekin batera EAEko laugarren hiriburua izan omen nahi duen eskualdean zine bakarrarekin gelditu gara: Bergarako Novedades. Eta egoera hilabete gutxi batzuk barru okerragoa izan daiteke, gure zine kaskar eta zaharra ixteko zorian omen dagoelako. Hau da panorama!

Zinea maite dugunok, hirietatik erakartzen gaituen ezagarrietako bat, justu, era guzti-etako filmak ikusteko ematen duten aukera da. Eta zinea esan

dudan moduan, hiriburuek eskaintzen dituzten zerbitzuak nik ez ditut hemen ikusten. Gure herrian eta eskualdean dauden gabezien artean hiriak ematen dituen zerbitzuak eta aukerak daude.

Debagoienako Lurraldearen Zatik Planak, bai, Urkuluko inguru ederrena txaletez bete nahi duen horrek, ez du egoera horri aurre egiteko proposamen berri eta aurrerakoirik jasotzen, modako hitzez josita egon arren: jasangarritasuna, eko-hiria ...

Gauzak horrela, hitz egin daiteke, seriotasun apur batekin, laugarren hiriburuaz? Hauteskunde ondoriotz eratuko den Udaltzatzak badu zereginik etorkizun hobea planifikatzen. Hori bai, lehenengo lana egin ondoren: hauteskundeetan Bergaran bigarren indar politikoa izan denari benetako aukera ematea ordezkatzeko dituen herritarrek Udalaren gestioan parte hartu ahal izateko eta euren ahotsa Udaletxean entzuteko dauden mekanismoak abian jartzea.

“Gure herrian eta eskualdean dauden gabezien artean hiriak ematen dituen zerbitzuak eta aukerak daude”

Berrigara
Irizar Jauregia • Barrenkalea 33
20570 BERGARA
Tel.: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: berrigara@goiena.com

ZUZENDARIA
Edu Mendibil
ERREDAKZIOA
Monika Belastegi,
Aintzane Irizar
MAKETAZIOA
Inaki Iturbe

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga
KOLABORATZAILAK
Luis Mari Agirre
Juan Martin Elexpuru
Miguel Angel
Elkoroberezibar

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



GUARDIAKO FARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 13**
PUY, Barrenkalea 25..... 943 76 16 87
- ZAPATUA, 14**
GUALLAR, San Antonio 5..... 943 76 11 05
- DOMEKA, 15**
GUALLAR, San Antonio 5..... 943 76 11 05
- ASTELEHENA, 16**
ESTELLA, Matxiategi 5..... 943 76 19 63
- MARTITZENA, 17**
MOZOS, San Pedro 4..... 943 76 12 15
- EGUAZTENA, 18**
CAMACHO, Oxirondo 4..... 943 76 11 74
- EGUENA, 19**
PUY, Barrenkalea 25..... 943 76 16 87

TELEFONO JAKINGARRIAK

- OSASUNA / LARRIALDIK**
- Ambulatorioa (txanda)..... 943 76 24 40
Bergarako Udaltzaingoa..... 943 77 91 06
Antzuolako Udaltzaingoa..... 943 76 62 46
Ertzaintza..... 943 76 53 40
Osasun etxea..... 943 76 24 40
Asepeyo..... 943 76 16 43
Pakea..... 943 76 13 49
Angiozarko medikua..... 943 78 90 27
Antzuolako medikua..... 943 76 62 23
Odol emaleak..... 943 76 16 24
Alkoholiko Anonimoak..... 943 76 51 06

- GARRAIOAK**
- Taxiak..... 943 76 19 50

- UDALA**
- Bergarako Udaletxea..... 943 77 91 00
Antzuolako Udaletxea..... 943 76 62 46
Udal Artxiboa..... 943 77 91 32
Igerilekuak..... 943 76 20 51
Kultura etxea..... 943 77 91 58
Liburutegia..... 943 77 91 62
Kiroldegia..... 943 76 56 41
Mizpirualde egoitza..... 943 76 13 68

- BESTELAKOAK**
- Epaitegia..... 943 76 14 92
Erregistroa..... 943 76 13 15
Jardun..... 943 76 36 61
Idolaz..... 943 76 65 08
Erretiratuen etxea, Bergara..... 943 76 21 40
Antzuolako erretiratuen elk..... 943 76 62 71
Postetxea..... 943 76 26 85
Bedelkar..... 943 76 04 68
Akulu AEK..... 943 76 05 18
Udal Euskaltegia..... 943 76 44 53
Bergarako notariotza..... 943 76 10 73

MEZAK

- | | |
|-------------------|----------------------|
| San Pedro | Labegarieta |
| Domekak: 11:00. | Domekak: 11:00. |
| 09:30, 12:30. | San Lorentzo |
| Zapatuak eta | Zapatuak: 20:00. |
| lanegunak: | Angiozar |
| 19:00. | Domekak: 11:30. |
| Sierbak | Moja Zaharrak |
| Lanegunak: 19:15. | Lanegunak: 09:00. |
| Zapatuak: | Zapatuak: 11:00. |
| 19:00. | Mizpirualde |
| Domekak: | Lanegunak: 11:45. |
| 11:30, 13:00. | Zapatuak: 17:30. |
| Osintxu | Antzuola |
| Domekak: 12:30. | Domekak: |
| Zapatuak: 19:00. | 09:00, 11:30. |
| Elosu | Zapatuak eta |
| Domekak: 10:30. | lanegunak: 19:30. |
| Ubera | Uzarraga |
| Domekak: 10:30. | Domekak: 10:00. |
| San Juan | Elgeta |
| Domekak: 11:00. | Lanegunak: 09:00. |
| Elorregi | Zapatuak: 19:30. |
| Domekak: 10:30. | Domekak: 12:00. |

- URTE-MEZAK**
- Santa Marina (Sierbetan)**
Hileko bigarren astean, domekan, 11:30ean.
- San Pedro**
Hileko hirugarren astean, domekan, 12:30ean.

OHARRAK

1960AN JAIOTAKOEN AFARIA
1960an jaiotako bergararrek afaria egingo dute ekainaren 21ean Txarrantxa jatetxean. Egunean bertan frontoian elkartuko dira, 20:30ean. Interesatek Kutxan irekitako kontuan eman dezakete izena, ekainaren 18a baino lehen.

PILOTA SAILAREN ZOZKETA
Bergara KEko Pilota Sailak egindako zozketan 1.095 izan da zembakia saritua. Txartelaren jabeak pilota finalerako bi sarrera eta 500 euro eskuratuko ditu. 2.767 zembakiari, berriz, Infernukua tabernan lau lagunendako afaria eta 200 euro egokitu zaizkio. Saritutakoei telefono zembaki honetara deitu beharko dute: 943 76 23 01 (Reyes Azkoitia).

IKASTAROAK KZGUNEAN
KZGuneak herritar guztientzako Informatika ikastaroak eskaintzen ditu. Argibide zabalagoak Irizar jauregiko (Barrenkalea 33) lehen solairuan edo 943 76 73 24 telefono zembakian.

ODOL ATERATZEAK
Bergarako odol emaleek jakinarazi dutenez, ekainean odol ateratze bakarra egingo da: ekainaren 25ean, hain zuzen ere. Uztailean, berriz, bi egingo dira: hilaren 9an eta 23an.

JARDUNEN AGENDA

JOLASLEKU IBILTARIA UMEENDAKO
Jardunen Jolasleku Ibiltaria egongo da datorren egubakoitzean, ekainaren 20an, Fraiskozurin, 17:00etatik 19:00etara, Lehen Hezkuntzako neska-mutikoendako. Begiraleekin batera hainbat jolas egiteko eta abesteko aukera izango dute neska-mutilek.

URBANOEN ORDUTEGIA

San Lorentzo / San Juandik irteerak
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.
GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorentzo (Sorraluze aurrean), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurra-dero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegarieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

Labegarieta / Olabarrenetik irteerak
07:20, 07:35, 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.
GERALEKUAK: Labegarieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoioia (Mintegi), San Pedro, Arruriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

ORAINDELA 10URTE BERRIGARAN

Iñigo Zaitegi BKEko presidente izendatu zuten

Bergara Kirol Elkarteko bazki-deek Iñigo Zaitegi taldeko presidente aukeratu zuten 1993ko ekainaren 18an egindako asanblada orokorrean. Zaitegik Alex Garitano zuzendu zuen elkartearen Zuzendaritzan. Garitanok hiru urte eman zituen presidente karguan.



BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elexpuru

“Mantxua”

Besobakarra, besamotza.
—Mantxua zan san Antonioko gasolinerua.



HAUGIROA!

MINIMOA 34 °C
Astelehena, 9

MAXIMOA 14 °C
Eguena, 5

ASTEKO EURIA (l/m²) 6,3 L


	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 4	26 °C	16 °C	6,1 l/m²
Eguena, 5	19 °C	14 °C	— l/m²
Egubakoitza, 6	28 °C	16 °C	— l/m²
Zapatua, 7	32 °C	14 °C	0,2 l/m²
Domeka, 8	19 °C	17 °C	— l/m²
Astelehena, 9	34 °C	16 °C	— l/m²
Martitzena, 10	33 °C	19 °C	— l/m²

San Juan auzoan jasotako datuak

GOGORATZEKOAK

IKASTAROAK KZGUNEAN

KZGuneak herritar guztientzako Informatika ikastaroak eskaintzen ditu. Besteak beste, Interneten nabigatzeko eta prestakuntzako ikastaroak. Joan den azaroan zabaldu zuten KZGunea Irizar jauregian: ikastaroetarako 12 ordenagailu daude eta jendeak erabiltzeko beste zortzi. Ordutegia: 09:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara. Argibideak, Irizar jauregiko (Barrenkalea 33) lehen solairuan edo 943 76 73 24 telefonoan.



Musika eta liburuak



Ibargarai 12 - 20570 BERGARA Tel.: 943 76 40 50 Faxa: 943 76 23 52
bergara@megadenda.com http://www.megadenda.com

ALBAITARIAK

- ARATZ KLINIKA (Lazpiur Roman)** Zurradero 6, behea. 943 76 70 67 / 607 48 71 19
ETXEBERRIA Julio (Granjako animaliak) 943 76 43 29 / 609 54 16 13
ETXEBERRIA Julio (Debagoieneko albaitari ofiziala) 943 76 43 29 / 609 54 16 13
IRASTORZA BENGOA Sabin (Granjako animaliak) Iribar baserria, ANTZUOLA. 943 76 63 46

ANALISI KLINIKOAK

- LABORRA Isabel** Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06

BARNE MEDIKUNTZA

- IRIGOIEN Victor** Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06

DENTISTAK

- AGIRRE HORTZ KLINIKA** Ibargarai 9, 1-B. 943 76 00 23
ARAMBURU HORTZ KLINIKA Telesforo Aranzadi 1. 943 76 02 46
ASTIAZARAN SOLOZABAL Iparragirre 1, behea. 943 76 27 95
BERGARA HORTZ KLINIKA Bidekurutzeta 36, behea. 943 76 05 77
GOROSABEL J. Alberto Fraiskozuri 5A, 1-D. 943 76 56 88
CAVIGLIA Silvana S. Arrieta 3, 2-B. 943 76 38 54
IRIARTE Idoia Artekale 1, 1-C. 943 76 01 65
SAINZ Ana Herriko plaza 4, ANTZUOLA. 943 78 71 69
TRIPALDI Enrike Fraiskozuri 1, 2. 943 76 70 76

DIETISTAK

- ALBERDI Mireia** Olaaran etxea, Herriko plaza 3, ANTZUOLA. 943 76 60 45 / 646 443 34 58

ERREHABILITAZIO FISIKOA

- LOPEZ DE MUNAIN Francisco J.** Fraiskozuri 8, 1A. 943 76 71 74

FISIOTERAPEUTAK

- ARZAK Miren** (Jarrera-berreziketa orokorra). Artekalea 1, 1-H. 943 76 43 71
BASTERRETXE, Maria Artekalea 1, 1-H. 943 76 43 71

HOMEOPATA

- GANUZA Susana** Ramon Maria Lili 2. 943 76 59 39

HORTZ-PROTESIKOAK

- MARTINEZ Begoña** Bidekurutzeta 10. 943 76 39 21

MASAILARIAK

- AZPEITIA Irupe** Ibargarai 44, behea. 943 76 73 43
CASANELLAS Jabier Boni Laskurain 5, 2-E. 943 76 03 78
ETXEBERRIA Ana Errekalde 6, behea. ANTZUOLA. 943 76 60 13

MEDIKUNTZA ESTETIKOA

- BENITO Isabel** Bidekurutzeta 46, behea. 943 76 52 62

MEDIKUNTZA OROKORRA

- OXIRONDO KONTSULTATEGIA** Boni Laskurain 2, behea. 943 76 20 50

PODOLOGOAK

- ALTUBE Edurne** Simon Arrieta 2. 943 76 07 84
AZPIAZU Arantzazu Herri Lagunak z/g. 943 76 41 32

PSIKIATRA

- GALLASTEGI Pablo** San Martin Plaza 2, 1-ekz. 943 76 26 64

PSIKOLOGOAK

- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA** (Logopedia-foniatria, psikologia, psikomotrizitatea). 943 76 14 80
URKAREGI Pakita (Psikologo klinikoa). 943 76 53 13
ZUBILLAGA ZABALA Marisa (Psikologo klinikoa). 943 76 30 76

YOGA

- SAMADHI YOGA** Masterreka 13, behea. 943 76 11 38 / 639 235 753

BERGARAKO
OSASUN GIDA
OSASUNEZ BIZI IZATEKO.

AISIALDIA/ Elkartearen asmoa da, oraingo asteburua abiapuntutzat hartuta, urte osoan barrena antolatzea kultura ekitaldiak

Tabernarien elkarteak asteburuan jaiak errepikatzen egitaraua prestatu du

MONIKA BELASTEGI

Jaiei jarraipena emango dien asteburua antolatu du Tabernarien elkarteak astebururako; besteak beste, kontzertuak egongo dira San Martin plazan. Ekitaldiok abiapuntua direla diote; asmoa da asteburuetan aisialdi osatu eta herria pizteko ekitaldiak antolatzea.

Berkotari elkarteak du izena herriko hainbat tabernarik osatu duten elkarteak, eta 23 taberna daude bere baitan: Biko, Pol-Pol, Xiri-miri, Depor, Etxenagusia, Ariznoa, Avenida, Ganbara, Kai, Eusebio, Etxagi, Nahikari, Ziripot, Tito's, Oilagorra, Irrintzi, Infernukua, Dixula, Jam, Arrano, Urrats, Kafe eta Usoa.

Elkartea sortu berria da, eta bere helburua da Udalak aisialdirako antolatzen dituen ekitaldien osagarri gisa beste ekitaldi batzuk antolatzea. Kideek zera esan dute: "Aisialdi eskaintza zabaltzea da gure asmoa. Horretarako kultura ekitaldiak antolatu nahi ditugu asteburuetan".

Musika emanaldi, antzerki zein mus txapelketa; denetarik ekitaldi motara zabalik daudela azaldu dute tabernariek; eta horrez gain, adin askotariko jendea ere hartuko dutela kontuan ekitaldiak antolatzeko orduan; alegia, umeak, gazteak, zein nagusiagoak.

EKITALDIAK URTE OSOAN BARRENA ANTOLATZEKO ASMOA

Berkotari elkarteak egin nahi duen kultura eskaintza hori asteburu honetan hasiko da.

Mendekoste jaien errepikapena antolatu dute, eta ekitaldiak egubakoitzean eta zapatuan izango dira. Dena dela, hori abia-



ANDER GILLENA

Jaietako eskenatokia aprobetxatuz, kontzertuak egingo dira gaur, egubakoitza, eta bihar, San Martin plazan.

Hogeita hiru tabernarik Berkotari elkarteak sortu dute aisialdi eskaintza sendotzeko

puntua besterik ez dela izango azaldu dute tabernarien elkarteak kideek: "Gauza ez da hor bukatuko; izan ere, gure asmoa da urte osoan barrena antolatzea ekitaldiak. Orain Mendekoste

Tabernarien asmoa da urte osoan barrena hainbat kultura ekitaldi antolatzea

jaiak errepikatzeari ekin diogu, eta hurrengo, seguruenik, San Martzialetarako ekitaldiak antolatzea izango da. Hortik aurrera beste asteburu batzuk eta beste ekitaldi batzuk etorriko dira".

Oraingo asteburuan, ekitaldiez gainera, txosna ere jarriko dute San Martin plazan

MEDEKOSTE JAIEN ERREPIKAPENA ORAINGO ASTEBURUAN

Astebururako hainbat ekitaldi antolatu dituzte: kontzertuak eta Mus Txapelketa besteak beste, goiko taulan ikusten denez. Eki-

Egitaraua

EKAINAREN 13a

19:30etik 22:00etara:
Poteo herrikoia
Elektrotuna taldeak
lagunduta San Martin
plazatik abiatuta

23:00:

Rock kontzertua Special
gues eta Sen taldeekin
San Martin plazan
Horrez gain, txosna
jarriko dute San Martin
plazan

EKAINAREN 14a

15:00:

Mus Txapelketa San
Martin plazan

23:00:

Rock kontzertua Sex
Museum eta Surfin kaos
taldeekin San Martin
plazan
Horrez gain, txosna
jarriko dute San Martin
plazan

taldi guztiak San Martin plazan izango dira, eta horrez guztiaz gain, txosna mugikorra ere jarriko dute. Txosna hori kontzertuek dirauten bitartean egongo da, eta amaitu bezain laster kendu egingo dutela aurreratu dute tabernariek. Zera azaldu dute: "Pazkoetan San Martin plazan jarri dugun txosnarekin eta oraingo asteburuan jarriko dugun txosnarekin, ekitaldiak antolatzeko dirua lortu nahi dugu; asteburuko ekitaldiek, esaterako, 15 mila euroko aurrekontua dute". Bestalde, astero bazkide kuota bat jarritzen dute tabernariek.

Hondakin arriskutsuak jasotzeko zerbitzua

MONIKA BELASTEGI

Debagoieneko Mankomunitateak Puntu Berde Mugikorren izeneko zerbitzua abiarazi du. Zerbitzua helburua da herritarrek euren etxeetan erabilitako olioak eta bestelako hondakin arriskutsuak nonbaiten botatzeko aukera ematea. Bilketa furgoneta bat arduratuko da, eta hilaren azkeneko zapatuetan etorriko da, merkatu plazara, 09:00etatik 13:00etara.

Jarduera partikularretik edo etxeetatik datozen hondakinak bakarrik onartuko dituzte; ez, ordea, jardura profesionaltik datozenak.

ZER-NOLAKO GAIK BOTA DAITEZKE?

Puntu Berde Mugikorren honako hondakinak onartuko dituzte: sukaldeko olio erabilia (motore olioekin nahastu barik), fluorescenteak (euren ontzietan sartuta), bateriak, toner kartutxoak, erradiografiak, pilak, telefono mugikorak, termometroak, etxetresna elektriko txikiak, motore olioak (ontzi itxietan), disolbatzaileak (ontzi itxietan), pestizida eta antzeokoak (ontzi itxietan), aerosol ontzi beteak edo erdi beteak.

Zerbitzuaren helburua da ingurumenean ondorio kaltegarriak eragin ditzaketen gaiak batzea eta tratamendu berezia ematea.



Puntu Berde Mugikorra azokaren ondoan egongo da, zapatuetan, 09:00etatik 13:00etara.



MONIKA BELASTEGI

Bergarako biztanleen %20tik gora ordezkaritza barik laga nahi dutela diote, eta hori ez gertatzeko borrokatuko direla.

UDALBATZA/Euren helburua honakoa: "Dagokigun kargua hartzea"

Bergara Aurrera udalbatza berriaren osaketan egongo da

MONIKA BELASTEGI

Bergara Aurrera plataformak bihar udalbatza osatzeko egingo den ekitaldira "dagozigun zinegotzietan" joango dela azaldu zuen aurreko astearen prentsaurrekoan. Horrekin batera, euren helburua "dagozigun kargua hartzea" dela gehitu zuten.

Aurreko martitzenean egin zuen Bergara Aurrera plataformak prentsaurrekoa; batetik, hauteskundeetako emaitzen balorazioaren gainean jardun zuten, eta bestetik, emaitzen ondorioez.

Plataformako kideek zera esan dute: "Hauteskundeak ez dira demokratikoak izan, eta emaitzak ezin dira zilegi moduan hartu". Dena dela, euren apustua egin zutela azaldu zuten, eta "herriak erabaki duena errespetatzeko borroka" egingo dutela gehitu zuten.

Bergara Aurrerak lortutako emaitzen kasuan zera esan zuten:

"Geunden egoeran eta baldintzetan egonda, emaitza txukuna da, bai kuantitatiboki, baita kualitatiboki ere. 1.833-1.884 boto artean eskuratu ditugu. Eta bi kopuru horiek aipatzen ditugu, boto baliogabe guztiak 1.884 izanda, badakigulako, garbi lortutako 1.833tik 1.884ra bitarte horretako baliogabeetako batzuk guretako botoak zirela. Horregatik diogu hiru edo lau zinegotzi lortu ditugula".

Emaitza horrekin, boto erabilgarriaren efektua gaintitza lortu dutela azaldu zuten: "Horren adierazgarri da oraindik ere Bergaran bigarren indarra izaten

"EAJ-EA, Aralar eta EB lapurretan arituko dira euren ordezkaritza onartzen badute"

jarraitzen dugula". Bestetik, hauteskundeetan abstentzioak gora egin izana zigor bototzat jo zuten.

'PUTXERAZOA' LEGITIMATU

EAJ-EAren kasuan, ez duela emaitza onik lortu adierazi zuten, eta argi dutela "lortuko emaitzeekin zortzi zinegotzi" dagozkiola koalizioari. Horren haritik, "espainiar legalitateak emandako beste bi zinegotziak euren gaitzatzen badituzte, lapurretan ibiliko dira, gureak dira-eta". Aralarren kasuan emaitza onak lortu badituzte ere, "hauteskunde ez demokratikoetan" izan dela azaldu zuten, eta bergararren hitza errespetatu nahi badute, "eskrutatutako laugarren zinegotzia gurea dela onartu beharko dute".

Era berean, EAJ-EAk, Aralarrek eta EBk "putxerazoa" legitimatu dutela gehitu zuten, eta euren ordezkaritza onartzen ez badute "lapurretan" arituko direla. Edozelan ere, Bergara Aurrera bihar udalbatzaren osaketan egongo dela aurreratu zuten.

LABUR

Bihar, zapatua, izango da udalbatza berria osatzeko osoko bilkura berezia, 12:00etan

Maiatzaren 25eko udal hauteskundeetako emaitzen ondoren, bihar, zapatua, da udalbatza berria osatzeko eguna. Han izango dira EAJ-EA, Aralar, EB, PSE-EE eta PPko ordezkariek kargua hartzeko. Victoriano Gallastegik ere han hartuko du alkate kargua. Bergara Aurrera herri plataformaren kasuan, bilkura berezira joango direla aurreratu dute; hainbat batzar izan dute gainerako alderdietako batzuekin udalbatzaren osaketa dela-eta. Ekitaldia 12:00etan izango da, osoko bilkuren aretoan.

Jaiak ospatuko dituzte San Antonioko auzotarrek domekara bitartean

Gaur hasi eta domekara bitartean jaiak ospatuko dituzte San Antonio auzoan. Gaur, San Antonio Eguna, meza izan da 10:30ean; 12:00etan, luntxa Gure Ametsa elkartearen eta 13:00etan, San Joxepe abesbatzaren emanaldia. Gauean, berriz, rock kontzertua egongo da 23:00etan, Hiru puntuak eta Jodete taldeekin.

Bihar, zapatua, San Antonio Txiki, herri txikiteoa egongo da 12:00etatik 14:30era, trikitilariak lagunduta, eta 16:30ean, 67. San Antonio Saria (III. Honorio Agirregabiria memoria) txirrindulari proba egongo da. Domekan, jaiak amaitzeko, Udal Txistulari Bandak diana joko du 09:45ean.



Laster zabalduko dute Ostetako bidea

Munibe plaza Iparragirre aldearekin lotzen duen kaleka laster zabalduko dute; Udaleko iturrien esanetan, datorren astean bukatuko dituzte lanak. Oraingo astean ekin diete kaltetxoak egokitze lanei. Tximela enpresak dihardu egokitze lanok egiten. Batetik, zorua konponduko dute eta, bestetik, Seminario aldera ematen duen horma.

BEHEKO TABERNA

Menestra eta untxia dira gure berezitasunak

ANGIOZAR
Tf.: 943 76 55 74

IKUSBI

ALKANDORAK,
JERTSEAK, BAKEROAK
ETA OSAGARRIAK

Irala 5
BERGARA
943 76 53 09

Aldoka Maldoka

TABERNA

Kruz Gallastegi
BERGARA

Kabutzia

ARRAINDEGIA

Fraiskozuri 6
BERGARA
Tf. 943 76 56 62



JAUJA KIROLAK

Irizar 2. BERGARA
943 76 14 95



ATHLETIC ANIMATZEN

Peña Athletic Bergarako lagunak San Mamesen egon ziren joan den maiatzaren 24an, zuri gorrien eta Santanderko Racing-en arteko partida ikusten. Guztira 40 lagun joan ziren Athletic animatzera. Goizeko 11etan irten ziren Bergaratik eta Deustuko Las Parrilas jatetxean bazkaldu ondoren, Katedralean izan ziren. Athleticek azken minutuan irabazi zuen partida eta oraindik badu UEFarako sailkatzeko aukera... Beraz, egun biribila izan zuten herriko Athletic-zaleek. Handik astebetera urteko bazkaria egin zuten San Martzialen, giro ederrean.



GASTEIZEN PATINATZEN

Joan den apirilaren 12an Erramu-zapatuko Txorimalo Lehiaketan saritu zituzten taldeetako partaideak Gasteizera joan ziren, izotzean patinatzera, maiatzaren 17an. Lehiaketan 31 taldek hartu zuten parte hainbat mailatan, eta 12 urtetik beherakotan saria eskuratu zuten bi taldeetako partaideak izan ziren Gasteizerako bidaiara irabazi zutenak. Aranzadi Ikastolako eta Mariaren Lagundiko 10 bat lagun joan ziren hara eta eurekin, Ainhoa Villar, Maite Zabaleta, Aritz Alustiza, Aitor Arantzabal eta Damian Madinabeitia Jarduneko Gazte taldeko kideak. Lagunartean ederto pasatu zuten eta izotzean patinatzen uste baino hobeto moldatu ziren...

JARDUNEN OLINPIADAK



LEHIA BIZIA OLINPIADAN

Bihar, zapatua, Jardunek antolatutako Olinpiadako hirugarren jardunaldia jokatuko da San Martin plazan, 16:00etan. Partaideek herri jolasak izango dituzte. Saillkapena horrela dago: 1-Marrazoak (31,5 puntu), 2-Tutukiak (25), 3-Porki Txerriak (23,5), 4-Gorridunak (23,5), 5-San Martintxo taldea (19), 6-The Scorpions (18), 7-Alperrak (13,25), 8-Sorbandurriarrak (12,5), 9-Funkiak (12), 10-Chipitren (11), 11-Orbea (11), 12-Arrano Beltza (10), 13-Rap Boyak (5,75) eta 14-Aupa Gu (5).

REMENTERIA Altzariak

Egongelak
Logelak
Aukera guztiak
Enkarguan

Artekalea, 6
BERGARA
943 76 13 29

SANTOS



Etxetresna elektrikoak
eta argiztapena

Masterreka 2. BERGARA
Tf. 943 76 26 10

FRONTOI



TABERNA

Fraiskozuri z/g.
BERGARA
943 76 05 09

OGIZUN

koop. elk.
okindegia



Ibargarai 44-46
BERGARA
943 76 45 53

Zubillaga 10
OÑATI
943 78 24 13

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,
txerri, bildots,
untxi eta
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA
Tel. 943 76 15 09



POL-POL Taberna

943 76 07 78. Bergara

MINGAINARITIRAKA



Elena Olmedo

IRALA BIDEO-KLUBEKOA

Tavesan 13 urte lanean eman ondoren, 1987tik Irala bideo-klubean egiten du lan, Victor Bernardo senarrarekin eta Sofia Sotorekin batera. Elenak 49 urte ditu eta bi seme-alaba daukate. Cancer zeinukoa da.

- Lan gehien, noiz izaten duzue?**
Neguan, abendu partean eta udan: abuztuan lan asko izaten dugu.
- Bezeroen artean, gazteak dira nagusi?**
Astean zehar, bai. Aste bukaeretan nagusiagoak ere etortzen dira. Zuk zeuk non ikusten dituzu filmak, zinean ala bideoan?
Normalean DVD formatuan ikusten ditut.
- Zein izan da denboraldiko arrakasta nagusia?**
Zinean arrakasta gehiegi izan ez zuten hiru film: *El jardín de la alegría*, *Quiero ser como Beckham* eta *La caja 507*.
- Zure aktore faboritoak?**
Meg Ryan eta Sean Connery.
- Aisialdian zer egitea gustatzen zaizu?**
Paseatzea eta eguzkitan egotea gustatzen zait.
- Zer moduz joan dira jaiak?**
Ez naiz oso jai zalea. Gutxi atera naiz Pazkoetan.
- Urtaro bat?**
Udaberria gustatzen zait, eguraldi ona hasten delako orduan.
- Gustuko jantzi bat? Kolore bat?**
Prakak, erosoak dira-eta. Kolorea, beltza.
- Bizitzan zeri ematen diozu lehentasuna?**
Aisialdia ondo aprobetxatzeari.
- Etxeko lan gorrotagarriena?**
Sukaldea.
- Seme-alabei zer errepikatzen diezu behin eta berriz?**
Etxean euren gauzak ordenatuta izateko.
- Aste bukaera baterako plan ideala?**
Kostaldeko herriren batera joatea, berdin dit nora.
- Udako oporretan zer egin erabaki duzu?**
Ziurrenik Almeriara joango gara, urtero moduan.
- Loterian jokatzeko duzu?**
Ez, ez dut jokatzeko ohiturarik.
- Bidaia bat nora egingo zenuke?**
Karibera joango nintzateke gustura, kruzero bat egitera.
- Realak liga irabaziko du?**
Baaaaaiiii!!!

EDU MENDIBIL

BERGARARRAK MUNDUAN

IÑIGO UGALDE

28 URTE / DEKORATZAILEA / CORUÑAN BIZI DA

“Coruña ezagututa, kostatu egingo litzaidake berriro Bergarara joatea bizi izatera”

EDU MENDIBIL

Iñigo Ugalde Coruñan bizi da joan den urteko uztaila ezkerro. 2000n, Anuska izeneko neska galiziar bat ezagutu zuen. Anuskak Bergaran jardun zuen lanean urtebetez, Aratz albaitari klinikan, baina joan den urtean Iñigok eta Anuskak Galiziarra joatea erabaki zuten, Anuskak han lan egiteko eskaintza bat jaso ondoren: “Handik gutxira hemengo dekorazio denda baten lan egitea proposatu zidaten eta biok hona etortzera animatu ginen. Eta ez naiz damutzen, oso gustura gaude-eta”. Galiziarra joan baino lehen Arrasateko Lasagabaster dendan lan egin zuen Iñigok: “Lan hura lagatzea asko kostatu zitzaidan, eta, bestalde, lagunak-eta asko sumatzen ditut faltan, beste norabait bizi izatera joaterakoan zaila delako lagun berriak egitea. Kuriosoa bada ere, Coruñan daukadan nire lagun onena argentinarra da”.

Coruña oso hiri polita dela diosku: “Donostiarekin konparatzen dute askotan, baina nire iritziz ez da horren polita. Hiri bizia da, eta hau ezagututa kostatu egingo litzaidake berriro Bergaran bizi izatea. Gustatzen ez zaidan gauza bat zera da: azken urteotan urbanizazioa ez dute askorik zaindu, kontrol askorik barik hazi da, eta berdegune gehiago sumatzen ditut faltan”.

“Hondamendi hutsa izan da ‘Prestige’-rena; oraindik ere galipot asko dago”

Galiziako klima atsegin du Iñigok: “Oso klima suabea da hemengoa, nahiz eta urte osoan euri asko egin, Euskal Herrian gertatzen den moduan”.

Prestige petroliontziairen auziak zeresan asko eman du eta gertutik bizi izateko aukera izan du: “Hondamendi hutsa izan da, eta okerrena zera da: konponbidea ez diotela aurkitzen. Oraindik ere galipot asko ikusten da hemengo hondartzetan, eta zaila izango da guztiz garbitzea. Jendearen haserrea nabaratu da”.



ria izan den arren, galiziarrek PPri botoa ematen segitzen dute, ulertezina da”.

Galiziarren izaeraren gainean zera dio: “Jende ona da, oso alaia, baina nahiko mesfidatia aldi berean. Toki gehienetan moduan, denetik dago. Baina, orokorrean, oso jende jatorrarekin topo egin dut hona etorri nintzenetik. Alde horretatik ez daukat inolako kezarik”.

Galiziarrek euskaldunak estimatzen dituztela diosku Iñigok: “Badakite Euskal Herriko egoera zaila dela, baina euskaldunetz oso iritzi ona daukate”.

Liga irabazteko helburuarekin Realak partidu erabakigarria jokatu du domekan Vigon, Coruñatik gertu: “Ez dut uste partidura joango naizenik, baina liga irabaztekoan, beharbada Bergarara joango naiz titulua ospatzera. Aurten, behintzat, Deportivo zaleei nahiko jotzen diet adarra Reala dela-eta. Orain ez bada, uztailean Bergarara joateko asmoa daukat”. Futbola baino gehiago, motoa da Iñigoren zaletasun handienetakoa: “900 zilindradako moto bat daukat eta egunero erabiltzen dut. Lehen, patinetarekin ibiltzen nintzen asko, baina motoagatik ordezkatu nuen. Askotan joaten naiz neskalagunarekin irteerak egitera, bide batez Galiziako txokoak ezagutzeko. Kirolari dagokionez, saskibaloian jokatzeko gustuko”.

Familia eta lagunak faltan sumatzen ditu: “Edozein modutan, ez da oso bidaia luzea, bost ordu besterik ez da, eta lagunak-eta etorri izan dira bisitan. Udan ere etorriko dira ziurrenik. Hala espero dut. Eskumuinak, denei”.

ETXE BERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16 BERGARA
Tf. 943 76 23 94 / 943 76 12 65

INGELESA

ikastaro trinkoak

Ekainaren 26tik
uztailaren 24ra arte

Haurrak, gazteak eta helduak

ESPOLON
School of English

INFORMAZIOA:
Ibargarai 31,
barruko plaza.
BERGARA
Tf. eta faxa
943 76 03 53.

espolonschoolofenglish@wanadoo.es

GOIERRI

AUTOGIDARIEN ESKOLA

Edozein eratako gida baimenak lortu ditzakezu

Fraiskozuri plaza 5 Tf. 943 76 41 50 BERGARA



Bergarako pilotariek ezin izan zituzten azkoitiarrak mendean hartu zapatuan Udal Pilotalekuan.

ARTXIBOA

PILOTA

Bergarak galdu egin zuen Azpeitiaren aurka Herri Arteko Txapelketan

Final-laurdenetan agur esan diote txapelketari pilotari bergararrek

EDU MENDIBIL

Bergarak ezin izan zuen aurrera egin Herri Arteko Pilota Txapelketan, zapatuan Azpeitiaren aurka 1-2 galdu ondoren. Joaneko partiduan ere emaitza berarekin galdu zuten bergararrek.

Final-laurdenetan Bergara Herri Arteko Txapelketatik kanpo geratu da. Azpeitian 2-1 galdu zuen Bergarak eta zapatuan azpeitiarrak berririo nagusitu ziren. Xabi Azurmendik eta Jon Larrañagak 15-22 galdu zuten kadete mailako partidua (Azpeitian 22-13 galdu zuten); gazte mailan, Asier Larrañagak eta Ibai Altunak 15-22 emaitzarekin galdu zuten (22-8 Azpei-

tian) eta, azkenik, Ander Mugu-ruza eta Igor Gutiérrez senior mailako bikoteak 22-8 irabazi zion bikote azpeitiarrari (joaneko partiduan 8-22 nagusitu ziren).

Reyes Azkoitia Bergara KEko pilota entrenatzaileak zera esan du: "Kadete edo gazte mailan partidua irabazteko itxaropena genuen, baina Jon Larrañagak eskuko arazoekin jokatu behar izan zuen eta, hala ere, 15 tanto egiteko gauza izan ziren. Gazte mailako partiduan ere garaipena eskura izan genuen, baina zapatuko partiduan ez genuen zorzea alde izan. Hala ere, saiatu gara ahal genuena ematen, eta pilotariek ezin zaie askorik eskatu".

Aurreko kanporaketan Aretxabaleta kanporatu ondoren,

Bergarak final-laurdenetan agur esan dio txapelketari.

DEBARROKO TXAPELKETAN GALDU

Kadete mailako bikoteak Debarroko Txapelketako finalerdia galdu zuen Elgoibarren aurka. Joaneko partiduan 22-13 galdu zuten bergararrek eta itzuleran ere elgoibartarrak nagusitu ziren, 5-22. Aitor Osak bi partiduak jokatu zituen, Elgoibarren Xabi Azurmendi eta Bergaran Jon Larrañaga ordezkatura.

Bihar, zapatua, infantil mailako Udaberri Txapelketako partiduak jokatu dira Udal Pilotalekuan, 16:00etan. Jon Pérez eta Aritz Untzueta bikote bergararrek eskualdeko finalera iristeko aukera dauka.

Motozale bergararrak, bikain, Musakolako lasterketan

E.M.

Joseba López bergararra bosgarren sailkatu zen domekan Arrasateko Musakola auzoan jokaturako motokros lasterketan. Jokaturako bi txanden ondoren, Fernando Muerza izan zen irabazlea. Joseba Lópezen atzetik Imanol Zalakain izan zen hurrengo bergararra, 8. postuan, eta ondoren Asier Blázquez (10. tokian, Mikel Gómez (15.a) eta Iker Pagaldai (19.a) sailkatu ziren. Senior mailako proban 26 partaide izan ziren. Maiatzaren amaieran Durruma Donemiliagan jokaturakoaren ondoren, Euskadiko Txapelketako bigarren

proba zen domekakoa. Joseba Lópezek Euskadiko Txapelketa irabazi zuen iaz.

Alebin mailan, Josu Mentxakak bergararra 19. postuan sailkatu zuen Musakolan; lasterketa bikaina egin zuen. Euskadiko Txapelketako hurrengo proba abuztuan jokatu da, Bizkaian.

Beheko argazkian, ezkerretik eskumara, Imanol Zalakain, Joseba López, Asier Blázquez, Xabier Zalakain eta Mikel Gómez. Beraien aurrean, laster zeresan ugari emango duten Josu Zalakain eta Josu Mentxaka gazte-txoak, dagoeneko motoan ondo baino hobeto ibiltzen dakitela erakutsi dutenak.



Herriko motozaleak Durruma Donemiliagan jokaturako probaren ondoren.

ELSA MANSO

XAKEA

Xake azkarreko Gipuzkoako eta Euskadiko Txapelketa zapatuan Bergaran

Bihar, zapatua, xake azkarreko Gipuzkoako Txapelketa jokatu da Ipintza II Institutuan, 10:00etan. Xakeko adiskidetasun klubaren zirkuitua ordu eta toki berean jokatu da. Bestalde, arratsaldean xake azkarreko Euskadiko Txapelketa jokatu da, 17:00etan. Domekan, berriz, taldekako 32. Bergara Hiria saria jokatu da Ipintzan, 10:00etan, eta 17:00etan xake partida azkarren txapelketa irekia izango da toki berean.

TXIRRINDULARITZA

Kadete mailako 67. San Antonio Txirrindulari Saria jokatu da domekan Bergaran

Lokatza Ziklismo Eskolak antolatuta, kadete mailako 67. San Antonio Txirrindulari Saria jokatu da domekan, hilaren 15ean. Hain zuzen ere, proba 16:30ean hasiko da eta txirrindulariek 70 kilometroko ibilbidea bete beharko dute. Lasterketa Espoioan amaituko da, 18:15ak aldera.

ATLETISMOA

Atletismoko proba konbinatuak izango dira zapatu goizean Agorrosingo pistan

Atletismoko proba konbinatuak izango dira zapatu goizean Agorrosingo pistan, 11:00etan. Helburua gaztetxoaren artean atletismo bultzatzea da; eta, beraz, neska-mutikoei parte hartzeko dei egiten diete. Ondoko probak jokatu dira: luzera-jauzia, 60 eta 100 metroko probak eta errelebu lasterketak.

IPINTZAKO FUTBOL TXAPELKETA

PARTIDUAK

ZAPATUA 14
Futbol 11

09:00: Gorriones-Indar Gorri
10:00: Mongitxarrak-Altos Pornos
11:00: Angiola-La Juve
12:00: Ilari-Gore

ASTELEHENA 16

Neskak, A maila
17:15: Irabazleak-Aranzadi
18:00: Xukak-Soraluze B
18:00: Euskaldunak-Soraluze A

ASTELEHENA 16

Neskak, Senior maila
20:00: Pentol's Team-Arrano
20:00: A Willy Willy-Baztangak

21:00: Arrano-A Willy Willy
21:00: Antzuola-Pentol's Team

MARTITZENA 17

Futbol 11
19:00: Txokokuak-Bildurbarek Opel Lam
20:00: Mongatxurak-Osintxu
21:00: Komando Piperrak-A Ze Flaxa

EGUAZTENA 18

Futbol 11
19:00: Torrekua-The Parpol
20:00: Fo Fo Fo-Getokuak
21:00: Aristoi-Arloteak Lacor

EGUENA 19

Beteranoak
19:30: Arloteak-Gipuzcoana
19:30: Txipiron-Mongatxurak
20:30: Bildurbarek-A Ze Flaxa
20:30: Ezinleike-Canalejas

EGUBAKOITZA 20

Neskak, A maila
17:15: Euskaldunak-Arloteak
18:00: Soraluze A-Xukak
18:00: Soraluze B-Irabazleak
Neskak, Senior maila
20:00: Potzu Ta Zapaburuak-Ogizun
20:00: Baztangak-Plaust
21:00: Arrano-A Willy Willy
21:00: Antzuola-A Willy Willy

MOTORRA

Vilariño, Zabaleta, Erro eta Egozkue faboritoak bihar Gorlako Igoeran

Entrenamenduak 16:00etan hasiko dira eta gero bi txanda izango dituzte partaideek


EDU MENDIBIL

Bergara Racing taldeak antolatuta, Gorlako Igoeraren 13. aldia jokatu da bihar, zapatua. 60 bat partaide izango dira. Entrenamenduaren ostean bi txanda izango dituzte gidariek.

Gorlako bidea 15:00etan itxiko dute bihar eta 16:00etan pilotuak ibilbidea ezagutzeko aukera izango dute. Ondoren, bi txanda jokatuko dira. Ohikoa den moduan, ibilbideak 4,9 km. ditu.

Biharko lasterketa Euskadiko Txapelketarako puntuagarria izango da. Orain arte proba bakarra jokatu da, San Cosmen, eta han Aitor Zabaleta bergararrak irabazi zuen. Biharko faboritoei dagokienez, Andres Vilariño, Pantxo Egozkue, Aitor Erro eta Zabaleta bera dira irabazteko aukera gehien dituztenak. Vilariño eta Egozkuek Formularekin korrituko dute eta Zabaletak eta Errok barketak aterako dituzte. Jesus Santamaria ere aurreneko postuetan izango da ziurrenik. Joan zen urteko edizioan Zabaleta nagusitu zen.

Debagoieneko beste hainbat gidari izango dira bihar irteeran: Aitor Ramirez (BMW ST 2000),



ARTXIBOA

Joan zen urteko edizioan ikusle ugari bildu zen Gorlako aldapetan.

Jose Angel Samaniego (Renault Clio Sport) eta Asier Mugerza (Citroen Saxo) oñatiarrak eta Iñigo Almortza bergararra (Opel Kadett).

Aurreko edizioetan moduan, bi txanda jokatuko dira. Antolatzaleek aurreikusitakoaren arabera, 20:00ak aldera bukatuko da lasterketa eta, ondoren, 21:30ean

sari banaketa egingo da Jam aretoan.

Bihar proba ikustera joaten direnek 8 euroko sarrera ordaindu beharko dute.

Infantil mailako eskubaloia taldea, primeran belarretan

E.M.

Ez da oso ohikoa eskubaloian belarretan jokatzea, baina horrelako txapelketa batera gonbidatu zuten Bergarako infantil mailako mutilen taldea. Esku Gazteak elkarteak antolatutako txapelketan 46 talde izan ziren lehian joan zen maiatzaren 31n, Gasteizen. Bederatzi orduko txapelketa izan zen Arriaga parkean eta Mikel Agirrezabal berga-


rarren entrenatzaileak bi talde osatu zituen, zelaira atezaina eta hiru jokalaritari ateratzen ziren-eta.

Helburu nagusia eskubaloia bultzatzea zenez, kiroltasun osoz jokatuko txapelketa. Bergararrek maila bikaina azaldu zuten, jokatutako partidu guztiak irabazi zituzten-eta. Baina emaitza ez zen inportanteena: ondo pasatu zuten eta, era berean, antolatzaleek zozketatuko hainbat sari ekarri zituzten etxera.



ESKUBALOI SAILA

Gasteizko txapelketan parte hartu zuten gaztetxo bergararrak.



GIPUZKOAKO TXIRRINDULARI ELKARTEA

Iker Leonetek esprintean irabazi zuen domekako proba.

Iker Leonet txirrindulariak irabazi zuen Mendekoste saria domekan

E.M.

Ulma-Cegasa taldeko Iker Leonet txirrindulari oiartzuarrak irabazi zuen domekan jokatutako 68. Mendekoste saria. Hamahiru laguneko taldetxoa iritsi zen helmugara eta Leonet Iker Irazu bere taldekideari nagusitu zitzaion

esprintean. Txirrindulariek 130 kilometroko ibilbidea izan zuten domekako proban eta hasieratik borroka handia izan zen. Udana-ko gaina (79. kilometroan) eta Asentzioko gaina (107.ean) izan ziren mendate bakarrak. Helmugarako kilometro gutxi falta zirela, 13 laguneko taldetxoa osatu zen

eta Iker Leonet izan zen helmugan azkarrena. Bigarren Iker Irazu sailkatu zen, eta hirugarren, Jon Arana (Orbea-Olarra).

Parte hartu zuten 113 txirrindularietatik 78 iritsi ziren helmugara. Herriko onena Zigor Medina izan zen, 33. postuan. Iñaki De Benito, 72. postuan iritsi zen.

SASKIBALOIA

Infantil mailako nesken taldea osatzeko deia

Talde bat osatzeko helburuarekin, saskibaloian jokatu nahi duten infantil mailako neskei deia egiten zaie. Beraz, 12-14 urte bitarteko adina duten eta saskibaloian jokatzeke gogoak daukaten neskei datorren egunean, ekainaren 19an, Mariaren Lagundiko gimnasioan egingo den entrenamendura joateko gonbidapena egiten zaie. Entrenamendua 17:00etatik 19:00etara egingo da. Gimnasioarako sarrera, Zabalotegin.

PALA TXAPELKETA

Pala Txapelketako hirugarren jardunaldia bihar

Bihar, zapatua, Pala Txapelketako hirugarren jardunaldia jokatuko da Angiozarren. 09:30ean hasita, ondorengo partiduak jokatuko dira: Juan Luis Etxaniz-Gurutx Beitia/Iban-Fernando Agirrebena; Asier Zulueta-Beñat Apraiz/David Bellanco-Carmelo Barcala; Xabier Quintana-Asier Unzurrunzaga/Candido Hurtado-Jose Izquierdo; Jose Caballero-Diego Galán/Iñaki Sánchez-Kepa García; Igor-Joseba Cusi/Patxi Vallejos-Xabier Albusua eta Eloy Crespo-Josu Agirrezabal/Rafael Prieto-Javier Viñaras.

Jendetzarik ez ibili arren, jai giroa izan da nagusi Pazkoetan

Herrian geratu direnen ahotan izan da Pazkoetan jende gutxiago ibili dela aurten. Jende askok nahiago izaten du egun hauek kanpora joateko aprobetxatzea eta aurten ere asko izan dira jaietan kale egin dutenak. Tabernariak ere igarri dute kanpoko bisitarien kopuruak behera egin due-

la. Luar na Lubre taldeak emandako kontzertura joandakoek ikuskizunarekin gozatu zuten egubakoitzean eta barrakak, rock kontzertuak, domekako zezenketa, dantzaldiak, sukaldaritza lehiaketak edota Bikote Gazteendako 26. Dantza Suelto txapelketak ere ikusmina piztu dute. Hainbat ekitalditan jendearen erantzuna izan bada

ere, egunez ez da jende gehiegi ibili eta jendeak nahiago izan du gauez irtetea. Jaietan izan dugun bero handiak ere zerikusia izango zuten horretan.

Azken urteotan moduan, martitzeneko herri bazkaria erabat arrakastatsua gertatu zen: 180 lagun inguru izan ziren eta bazkalosteko giroa primerakoa izan

zen. Gazte eta helduen koadrilak elkarrekin ibili ziren kalejiran, umore onean. Kaleko saltzaileak ere ugari izan dira, nahiz eta ia guztiek gauza berdinak saldu.

Bitorianatxok agur esan zigun martitzenean. Orain urtebete itxoin behar berriro etorri arte... ARGAZKIAK: ANDER GILLENEA ETA BERRIGARA

Asko izan dira jaietan alde egin duten herritarrak eta egunez baino gauez ibili da jendea



Txapela buruan... eta ibili barraketan. Gazteenek auskalo zenbat buelta eman dituzten barraketan.



Kalean postu ugari, ia guztiak berdinak, baina txikienei ere gustatzen zaizkie.



Herri bazkarian, eguzkiari aurre egiteko, kapela eta eguzkitako betaurrekoak jantzita, badaezpada..



Esaten genuen ba guk, aurreko astean, etxafuego jaurtitzaille aparta dela Guti.



Gehiago eta hobeto programaren barruan Bergarako Udaleko Euskara Zerbitzuak argitaratutako aldizkaria. 6. alia

IEPA DANOI!

Aurreko aleko ariketak oso ondo egin zituazten. Zuek jarraitu hola, fin-fin.

Orainguan be helburua lehengo bera izango da, hau da, ondo pasatzia!! Horretarako, igarkizuna, komikixa, ipuiña, ariketatxoren bat... edukiko ditzuzue.

Eta gogoratu, erantzunen orrixa ondo betez gero, erregalu polittak irabazteko aukeria edukiko dozuela.



IGARKIZUNA

Zenbaki bat naiz
Gerri estukua
Bat baiño
haundixagua
Hamar baiño
txikixagua



ERANTZUNA: ZORTZI

HOBETZEKUAK

1. BEZALA/ MODUAN

Modu izena danez, izenlagunak (-ren edo -ko dauzkatena) onartzen dittu baiña **bezala** ez danez izena, ez dau izenlagunik onartzen.

- Zure moduko kamisetia daukat.
- Zure bezalako kamisetia daukat
- Betiko moduan egingo dot.
- Betiko bezala egingo dot.



KONPARAZIÑUAK

Aurretik esan dogun bezala, **zure** izen laguna da eta atzetik izena eduki bihar dau, eta **baino** ez da izena. Bestalde, konparatzen diren bi terminuak deklinabide kasu bera izan bihar dabe:

- Ni zu baiño haundixagua naiz.
NOR NOR
- Ni zure baiño haundixagua naiz.
NOR NOREN
- Nik zuk baiño hobeto egin dot.
NORK NORK
- Nik zure baiño hobeto egin dot.
NORK NOREN

2. HARRIDURAZKUAK

Oso zabaldua dago harridurazko esaldixetan erdarazko egitturak erabiltzia: **iqué rapido!**, **iqué guay!** eta abar. Euskaraz hainbat egitura dauzkagu esanahi hori adierazteko.

- Zelako azkar!
- Bai ondo!
- Hori auto ederra!



KOMIKIXA



ENE ENE, ZELAKO...

Asmakizunetan jardungo dogu. Joku hau "ikusi makusi" jokuaren antzerakua da baiña pistak emoteko orduan beste era bat erabiliko dogu.

Edozein lekutan jokatu zeinkie:
 etxian,
 supermerkatuan,
 kalia,
 ikastetxian...

Igarkizuna proposatzen dabenak, pentsatzen daben gauzaren ezaugarri bat esango dau, adibidez:
 –Ene ene, zelako ... gorrixa!
 Bestiak gauza hori asmatzen ahaleginduko dira.


Asmatzen dabenak esango dau hurrengo igarkizuna.



ZEIÑEK EGINGO DAU, ZEIÑEK EGINGO DAU...?

Zer moduzko imitatzailliak zarete? Hona hemen etxeko danon artian ondo pasatzeko jolas polit bat. Etxeko bat, edozein, hasiko da eta hola galdetuko dau, esate baterako:
 –Zeiñek egingo dau, zeिñek egingo dau... barre, Shin Txan-en moduan?

Shin Txan-en barria imitatzera animatzen danak nik!, nik! esango dau eta Shin Txan imitauko dau eta hurrengo bera izango da zein imitau bihar dan aukeratuko dabena. Esate baterako:
 –Zeiñek egingo dau, zeिñek egingo dau... zaunka txakur haundixen moduan?



GUAU!
GUAU! GUAU!



Eta hola aspertu arte, gauza pilla bat imitau zeinkie: amamaren moduan doministiku egittia, katu loguretu baten moduan miau egittia, oillar zahar batek bezala kukurruku egittia...

AKORDAU BETI GAUZA BATEKIN:
 "Shin Txanen bezala" esatia txarto dago. Bezala erabiltzekotan, "Shin Txanek bezala" esan bihar dogu.

ARIKETAK

1. Maialen, Ane, Ion, Gaizka, Mikel eta Ainarak lasterketa batian parte hartu dabe. Pista batzuk badauzkagu baiña ez dakigu zela amaittu dan lasterketia. Ia asmatzen dozuen!




- Maialen Ion baiño motelago ibilli da.
- Mikel Maialen baiño gelduago ibilli da.
- Ane Ion baiño azkarrago ibilli da.
- Gaizka Ion baiño mantsuago ibilli da.
- Gaizka Maialen baiño ariñagu ibilli da.
- Mikel Ainara baiño bixkorragu ibilli da.

SAILKAPENA:

- 1.....
- 2.....
- 3.....
- 4.....
- 5.....
- 6.....

2. Hurrengo esaldixetatik aukeratu egokixena. Argi ibilli! Lerro baten bi esaldixak egokixak dira eta.

- 1 • A: Zure bezelakua izan nahi dot. / B: Zu bezelakua izan nahi dot
- 2 • A: Zu baiño haundixagua naiz. / B: Zure baiño haundixagua naiz.
- 3 • A: Zelako ondo! / B: Ke guai!
- 4 • A: Nik zure moduan egingo dot. / B: Nik zure bezala egingo dot.
- 5 • A: Betiko bezala egin dabe. / B: Betiko moduan egin dabe.
- 6 • A: Zure guardasola neria baiño polittagua da. / B: Zure guardasola nere guardasola baiño polittagua da.
- 7 • A: A ke bai! / B: Baietz!
- 8 • A: Andonik jo nau. / B: Andonik jo dost.
- 9 • A: Zu baiño azkarragua naiz. / B: Zure baiño azkarragua naiz.
- 10 • A: Ainhoak ostikada bat jo dost. / B: Ainhoak ostikada bat emon dost.



ERANTZUN ZUZENAK:

- | | |
|-----------|------------|
| 1 • | 6 • |
| 2 • | 7 • |
| 3 • | 8 • |
| 4 • | 9 • |
| 5 • | 10 • |

INKESTIA



Zein da antxintxika gehixen egitten daben pertsonia?



Judith Dovao

Atletismua egitten dabenek egitten dabe korrika gehixen. Egixa esateko ez dittut atleten izenak ezagutzen, baiña amak esan dostenez, Martin Fiz, Carl Lewis eta Ben Johnson izan die azkarrenak, ala?



Aitor Elizburu

Ez dakit zein izango dan. Ni futbolzalia naiz eta Nihat Realeko jokalarixa oso azkarra da. Realian korrika gehixen harek egingo dau. Hala be, Xabi Alonso da neri gehixen gustatzen jaten jokalarixa.



Josu Mentxaka

Martin Fiz atleta. Telebistan ikusi izan dot eta distantzia luzietan oso korrikalari ona da, euskal kirolari onenetakua. Neri be asko gustatzen jat atletismua, baiña ez naiz hain azkarra...



Mireia Olabarria


Forrest Gump. Pelikulia ikusi nebanian harrittuta geratu nintzen zelan egitten zeban korrika. Oso pelikula dibertigarria pentsau jaten. Nahiko neuke Forrest Gump-en moduan korrika egittia...

NERE GOMEDIXUA



IRIA CUEVAS
Aranzadi
Ikastola

'NIKOLAS TXIKIREN KOMERIAK'
Goscinyy-Sempe
Itzultzaillia:
David Urbistondo.
Elkarlanean argitaletxea



Liburu horrek mutiko baten eta bere lagunaren komerixa danak kontatzen ditu. Nik liburua barre egin nahi daben pertsona bati gomendatuko notsake. Oraintxe dihardut irakurtzen eta politta eta barregarria da. Egunen baten bakarrik bazare eta barre pixkat egin nahi badozu, irakurri liburu hori. Eta bestela be bai.



ipuiña

ARRATOITXO KASKARIÑA

Behin batian, arratoitxo pinpirin batek, bere etxeko atarixa garbitzen ziharduala, txanpon bat topau zeban. Txanponarekin zer egingo zer ez egingo, xingola bat erostia erabaki zeban. Xingola illian jarri eta, dotore-dotore, etxeko atarixan jarri zan, danei zein dotore zeguan erakusteko.

Segittuan, buztan ederreko oillar bat agertu jakon parian.

- Arratoitxo, nerekin ezkondu nahi dozu?—galdetu zotsan lepua luzatuz.
- Eta gabian, zer egingo dozu?—erantzun zotsan arratoitxuak.
- Oillar formalak bezala kukurruku egingo dot.
- Zelako iskanbillia!—esan zeban arratoitxuak belarrixak tapatuaz.



Handik gutxira txakur jator bat pasau zan arratoiaren etxe aurretik.

- Arratoitxo, nerekin ezkondu nahi dozu?—galdetu zotsan.
- Eta gabian, zer egingo dozu?
- Txakur formalak bezala zaunka egingo dot.
- Hori zalaparta!—esan zeban arratoitxuak harrokerixa haundixarekin.

Handik puntuko, katu bibote handidun bat pasau zan arratoitxuaren aurretik. Bazkari gozua izan leikiela pentsatu eta hala galdetu zotsan ahots maitagarrixarekin:

- Arratoitxo, nerekin ezkondu nahi dozu?
- Eta gabian, zer egingo dozu?—erantzun zotsan arratoitxuak begixakin kiñua egiñez.
- Katu formalak bezala miau egingo dot.

Billurtuta, arratoia etxera sartu zan eta katuak gosetuta alde egin zeban handik.



Hurrengo goizian, arratoi txiki lotsati bat pasau zan arratoitxo kaskariñaren atari aurretik.

- Arratoitxo, nerekin ezkondu nahi dozu?—galdetu zotsan lilluratuta.
- Eta gabian, zer egingo dozu?
- Lo eta lo!—erantzun zeban arratoiak.
- Ba, zurekin ezkonduko naiz!

Handik lasterrera ezkondu ziren bixak eta aurrerantzian zorientsu bizi izan ziren elkarrekin.

Irakurri dozue arratoitxo kaskariñaren ipuiña? Gustau jatzue?

Ipuiña moldatu nahi dozue? Aldatuko dogu puxka bat? Aldatuko dittugu arratoiaren etxe aurretik pasatzen diren animalixak? Esate baterako, bildots txikixak, edo lehoi haundixak, edo asto zaharrak, edo otso gosetixak... pasau leizke. Saiatu zaittie, ia urtetzen jatzuen! Animalixak egitten dittuzten zaratak:

- Astuak: arrantza
- Katuak: miauka
- Behorak eta Zaldixak: irrintzi
- Oillarrak: kukurruku
- Behixak: marrusa

- Oilluak: kakaraka, karasa
- Ardixak: orrua
- Txitak: txioka
- Lehoiak: orrua
- Otsuak: uluka
- Txakurrak: zaunka





GURE AMETSA IRABAZLE Gure Ametsako Pedro Ricok eta Donato Ormazabalek irabazi zuten zapatuko bakailao lehiaketan. Puntuazio kontaketan izandako akats bategatik saririk jaso ez zuten arren, Artateko Mikel Gómez eta Rafael Nafarretek irabazi zuten lehen saria eta ondoren Jaolatza (Mertxe Gaztelu eta Jose Manuel Markiegi) eta Hermandad Pertxa (Migel Lazkano eta Jose Mari Etxeberria) sailkatu ziren. Argazkian, Juan Mari Corral eta Jose Mari Pérez, Pertxako ordezkariak.



Jende asko etorri zen zapatuan Barandallaren eta Fitiren aldeko manifestaziora.



Txosnak jendearen topaleku izan dira jaietan.



DANTZAN, BERGARARRAK NAGUSI Bikote Gazteendako Euskadiko 26. Dantza Sueltoiko Txapelketak badu bikote irabazlea: Bergarako Izarne Medinak eta Jon Arrillagak osatutakoa, hain justu ere (goiko irudian). Bigarren, berriz, Elgetako bikote bat sailkatu zen, Hiart Bolinagak eta Andoni Elorzak osatzen duten bikotea. Hirugarren, berriz, Azkoitiko Iraitz Olariaga eta Irantzu Larrañaga izan ziren. Domekan jokatu zen txapelketa eta hamalau bikotek hartu zuten parte.



Trapu Zaharra antzerki taldeak harrituta utzi zituen ikusleak, domekan.



BI TOREATZAILE GAZTE Domekako zezenketan Ekaitz Rodríguez toreatzaile gazteak belarri bat moztu zuen. Javier Anton hasiberriak, berriz, ez zuen saririk jaso. Ikusleek Igor Etxaniz burtzikariaren saioarekin gozatzeko aukera ere izan zuen. Bestalde, zapatuko Errekortadoreen Txapelketan Armando Sanchok eta Victor Amatriainek osatutako bikoteak eraman zuen lehen saria, txekorrei 5 uztaiz jartzea lortu ondoren. Errekorte onena Hodei Lazpitak egin zuen, baina aretxabaletarrak adarkada larria jaso zuen.



Bideberrin kontzertu ugari izan dira jaietan. Goian domekako emanaldia..

Epaimahaiak erabaki ditu dagoeneko maila bakoitzeko hiru irabazleak, eta sari banaketa bihar, zapatua, izango da, 12:00etan, Zabalotegi aretoan

Koldo Eleizalde Literatura Lehiaketaren XVIII. aldian 509 lagunek hartu dute parte

MONIKA BELASTEGI

Aurten ere jende ugari hartu du parte Koldo Eleizalde Literatura Lehiaketaren XVIII. aldian. Lehiaketa adinaren arabera bost taldetan banatzen da, eta epaimahaiak dagoeneko erabaki ditu irabazleak. Sari banaketa bihar izango da, Zabalotegi aretoan.

Epaimahaikoen arabera, nabarmentzekoa da izandako partaidetza handia. Guztira 509 lagunek hartu dute parte bost taldeetan banatuta: lehen taldean (1992-93), 98 lan jaso dituzte; bigarrenean (1990-91), 156 lan; hirugarrenean (1988-89), 146 lan; laugarrenean (1985-87), 80 lan eta bosgarrenean (1989 edo aurretik), 26 lan ipuinen sailean eta hiru olerkien sailean.

MAILA ONEKO LANEN MULTZOA

Epaimahaiari dagokionez, honako hauek osatu dute: Juan Martin Elexpuruk, Miguel Angel Elkoroberezibarrek, Esteban Antxustegik eta Udaleko Euskara Zerbitzuko teknikari batek. Epaimahaiko kide horien iritziz, lanen



Argazkian iazko irabazleak, Zabalotegiko eszenatokian, saria jaso eta gero.

maila bete urte batzuetakoaren antzekoa izan da eta bada maila oneko lanen multzo polit bat. Horrez guztiaz gain, aipagarritzat

jo dute bosgarren taldeko lehenengo lanaren orijinaltasuna eta bigarren lanak azaltzen duen umorea eta gerra aurreko isto-

rioekin gozatzeko eskaintzen duen aukera.

Sari banaketa bihar, zapatua, izango da, Zabalotegi aretoan,

12:00etan. Sari banaketako ekitaldia osatzeko, ikastetxeetako ikasleek antzerki eta kantu emanaldia egingo dute.

Lehiaketako irabazleak

1. MAILA: 1992-93

1. Maiteren urtebetetzea / Uxue Lazkano
2. Ordenagailua eta bere lagunak / Ainhoa Etxeberria
3. Pirten kalaberak / Maddi Txintxurreta

2. MAILA: 1990-91

1. Kulamiri ez zaizkio egun lainotsuak gustatzen / Ane Barragan
2. Irfanen istorioa / Julen Muruamendiaraz
3. Aitor eta Pantxika / Ane Etxaniz

3. MAILA: 1988-89

1. Yoko aspertu da zirkuan / Idoia Larrañaga
2. Sute misterioa / Josu Iñarra
3. Ni eta Xabierren abentura paregabeak / Josu Irizar

4. MAILA: 1985-87

1. Portzelanazko panpina / Hiart Bolinaga
2. Pantxika itsusi / Miren Aranguren
3. Aske izan nahi zuen txoria / Ane Elorza

5. MAILA: 1984 edo aurretik

1. Bizitza motza / Garazi Olabarria
2. Ipuin egizkoak, apur bat ahobero! / Natalio Juaristi
3. Oroitzapenak/Maddi Iñarra

Bigarren zaindaria/Jaione Yera

OLERKIA: Artista existentsialistak / Josu Aranzabal

Musika Eskolak Udaberriko Kontzertua egingo du etzi

MONIKA BELASTEGI

Etzi, domeka, XV. Udaberriko Jaialdia ospatuko dute Musika Eskolako ikasle eta irakasleek. Urtero moduan, jaialdia ospatzeko hainbat ekitaldiz osatutako egitaraua prestatu dute. Ekitaldi nagusia domekan, 12:30ean, Udal Pilotalekuan egingo duten kontzertua da. Edozelan ere, kontzertuaren aurretik, 11:30ean, kalejira egingo du Trikitixa taldeak.

Kontzertuan Musika Eskolako 250 ikasle inguruk hartuko dute parte, bost taldetan banatuta. Gainera, aurtengo berritasun gisa, Uxue Rodríguez Betizu taldeko kideak hiru kantu abestuko ditu Musika Eskolako kideekin batera. Kontzertuaren ondoren, herri bazkaria egingo dute Espoloian.

Bestalde, ikasleek hainbat kontzertu egingo dituzte 16tik 26ra bitartean, 19:00etan, Zabalotegin eta Musika Eskolan.



Gabero Burgosen, Jesus de Monasterioren omenezko kontzertuan

Gabero abesbatzak kontzertua egin zuen aurreko zapatuan Burgosko Casar del Pereide herrian. Jesus de Monasterio musikaria hil zela ehun urte dira aurten, eta haren omenezko kontzertuan abestu zuen Gaberok. Emanaldia Casar del Pedroko elizan izan zen, eta Bergarako abesbatzarekin batera beste hiruk ere jardun zuten: Suancesko Coral Juvenil Quintanak, Cabezon de la Salgo Coro Municipal Alia Musiak eta Tolosako Hodei Truk Abesbatzak.

Gaberok bost kantu abestu zituen: *One candle, This little light of mine, Ave Maria, Guantamera* eta *Pasaje*. Horrez guztiaz gain, talde guztiek elkarrekin bi kantu abestu zituzten: *Hallo Django* eta *Kanbon Palangak Pagoz*. J.M.B.

Kontzertuaren egitaraua

BME-KO KORAL, H.H-KO ETA H.M.KO 1. ETA 2. MAILAK

Bakarlaria: Uxue Rodríguez
Zuzen zuzen / *Ihesi noa / Airez aire*

BME-KO SOKA TXIKI TALDEA

Irakaslea: Josune Ena
Song of the wind (Herrikoia) /
Lightly (Herrikoia) /
Twinkle, twinkle, little star (Suzuky)

BME-KO GAZTE BANDA

Zuzendaria: Alberto Laskurain
Cortège, Choral et Farandole (R. Kemen) /
Colors of the wind (A. Menken)

BME-KO HAURREN ABESBATZA

Zuzendaria: Kristina Larrañaga
Lau beltz espiritual (F. Lanone)

BME-KO ORKESTRA SINFONIKOA

Zuzendaria: Maite Aurrekoetxea
Memory (A.L. Weber) / *Temas de James Bond* (Calvin Custer)

ZAHARRENETXETIK

Xabier Ibartzabal mediku donostiarrak idatziko du erretiratuen elkarteko historiaren gaineko liburua


EDU MENDIBIL

Xabier Ibartzabal mediku donostiarrak jasoko du Bergarako erretiratuen elkartearen historia. Liburuak ez dauka oraindik izenbururik, eta bali-teke udazken alderako egotea kalean.

Joan den apirilaren 30ean urteko batzar orokorra egin zuen San Joxepe elkarteak eta han, Xabier Ibartzabalek idatziko duen liburuaren berri eman zuten. Helburua 1970eko hamarkadatik hona erretiratuen elkarteak izan duen ibilbidea jasotzea da, Aitonak elkarteak sortu zutenetik gaur egun arte. San Joxepeko zuzendaritzak Xabier Ibartzabal medikuari agindu dio lan hori. Ibartzabal barne medikuntzako espezialista da, eta Donostiako Matia Fundazioan dihardu lanean. Bio-


etikako masterra dauka, eta, San Joxepe gonbidatuta, gai horren gaineko hitzaldia egin zuen Bergaran joan den urtean.

Xabier Ibartzabal berak zera adierazi digu: "Lanaren zirriborroa badaukat dagoeneko, eta informazioa eskuratzeko orduan, artxiobotara eta ahozko testimonioetara jo dut. Era berean, azken 30 urteotako hainbat argitalpen ere baliagarriak izan zaizkit. Alkartu Naik Aitonak elkarteak sortu zuen eta ordutik honako ibilbidea jasoko dugu. Era berean, San Joxepe gaur egun egiten duen lanaren berri ere emango dugu. Egia esatearren, oso elkar-te bizia da Bergarakoa, urtean zehar ekitaldi asko egiten ditu-eta. Bestalde, testuarekin batera, liburuak argazki dezente izango ditu". San Joxepe elkartekoek udazken alderako kaleratu nahi dute liburuak, Kultur Hamabostaldiaren programaren barruan.



Xabier Ibartzabalek hitzaldia egin zuen iaz San Joxepen. Hark jasoko du erretiratuen elkartearen historia.

ARTXIBOA



San Joxepekoak Gasteizko Legebiltzarrean

San Joxepe elkarteko lagunak Gasteizko Legebiltzarra bisitatzera joan ziren aurreko hilean. Goiko argazkian ikusten denez, erretiratuek parlamentarien tokiak hartu zuten Legebiltzarrera egindako bisitaldian. Karten Museoa ere bisitatu zuten, eta Gasteizen bazkaldu ondoren, bueltatxo bat eman eta iluntze aldera itzuli ziren Bergarara.

MIZPILDI



OKINDEGIA

Matxiategi 1. 943 76 72 73. Mizpildi 8. 943 76 12 32. BERGARA

KONDE
PANADEROKUA



Burdiñate 1
943 76 02 57
Toki Eder plaza 3
943 76 14 87
BERGARA



IRURAK MARGOAK
DISEINUA, S.L.

Era guztietako lanak Paper pintatuak
Moketa eta sintasola Harea zorrotada
Iztuku esponjatua Iztuku faltsua

Aitziturri 6 • 95 posta kutxa • 20570 Bergara
Telefonoak: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984
Faxa: 943 76 09 32



BERGARA

Yaiza PlazasEkainaren 5ean, 11 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak eta Saray.

BERGARA

Juan GarateEkainaren 3an, 90 urte.
Urte askotarako!
Bilobak.

BERGARA

Asier GallastegiEkainaren 10ean, 2 urte.
Urte askotarako!
Ander, Jokin eta gurasoak.

BERGARA

Jokin GallastegiEkainaren 10ean, 2 urte.
Urte askotarako!
Asier, Ander eta gurasoak.

BERGARA

Ibon GallastegiEkainaren 12an, 39 urte.
Urte askotarako!
Ander, Asier eta Jokin.

BERGARA

**Andoni
Fernandez de Lezea**Ekainaren 11n, 11 urte.
Urte askotarako! Etxekoak.

BERGARA

Aitzol ElkoroberezibarEkainaren 4an, 2 urte.
Urte askotarako!
Aitita, amama eta Eli.

BERGARA

Aitor Sánchez14 urte! Zorionak!
Aitita, amama eta
etxeokak.**Adi!**

Argazkiak emateko lekuak:

Bergara: Berrigara, Irizar jauregia, Barrenkalea 33**Antzuola:** Udal Liburutegia, astelehenetan 17:00etatik 19:00etara**Elgeta:** Erosle-Baltxongua

BERGARA

Unai**Arietaleanizbeaskoa**Ekainaren 16an, 4 urte.
Urte askotarako! Etxekoak.

BERGARA

Alatz LazpitaEkainaren 17an, 7 urte.
Urte askotarako! Etxekoak,
Josu, Mariñe eta Ibon.

BERGARA

Mikel Alberdi18an, 3 urte. Zorionak!
Etxekoak; bereziki, Maddi,
Maitane eta Olatz.

BERGARA

Maddi AldazabalEkainaren 14an, 3 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.

Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak
BERRIGARAREN bidez! Ekar ezazu bere argazkia*
eta emaitza ezusteko ederra! **Doan!**


*Argazkiaren neurria, gehienez: 13 x 18 cm. Pertsona bera bakarrik nahiz taldearen barruan agertzen den argazkia ekar dezakezu. Argazkia oso-osorik jaso ahal izango duzu, zorion agurra BERRIGARAREN agertu ondoren. Argazkia, urtebetetze eguna baino bi aste lehenago ekartzea komeni da.

CAMACHODrogeria
UsaindegiaBidekurutzeta 24
BERGARA
943 76 13 35**GURIA**
TabernaBidekurutzeta 5
BERGARA
943 76 20 34PINTXO eta BOKADILOAK
SEKULAKO MARTXA!!**EUXEBIO II**Irala z/g
Bergara
943 76 07 92**OILAGORRA**
TABERNA

Barrenkalea 21 BERGARA

943 76 20 61
BERGARA

BONO FOTOA



MIGUEL ANGEL ELKOROBREZIBAR

Non dago frontoi hori?

GALDEDEBALDE

- | | | |
|--|--|---|
| <p>1.
Koldo Eleizalde literatur lehiaketak zenbatgarren edizioa bete du aurten?</p> <p>A/ 18.a.
B/ 23.a.
C/ 24.a.</p> | <p>2.
Nork idatziko du Bergarako erretiratuen elkartearen gaineko liburua?</p> <p>A/ Xabier Ibartzabalek.
B/ Agustin Ozamizek.
C/ Raquel Barcenillak.</p> | <p>3.
Aurreko urtean, zeinek irabazi zuen Gorrako Auto Igoera?</p> <p>A/ Andres Vilariñok.
B/ Aitor Zabaletak.
C/ Aitor Errok.</p> |
|--|--|---|

Super BM

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA
JULI URKIZUrendako izan da 30 euroko erosketa-txartela.
 Zorionak, Juli!
 Galderen erantzunak: Bono-fotoa: **Hiribilduarena** / Galde debalde: 1-C, 2-C, 3-A.



Super BMk emandako **30 euroko erosketa-txartela** zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1/ 2/ 3/

Ekarri txartela **MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!**

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Don Rodrigo
 Ardo beltza eta gorria. 75 cl-ko botila

0,60 €
 100 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!


ESKULTORE BERGARARRAK GAUR

Jon Balentziaga

EDU MENDIBIL

Arte Ederretan lizentziaduna da Jon Balentziaga (Bergara, 1960) eta pintoretzat eta eskultoretzat dauka bere burua. Hark egindako eskulturak herriko hainbat tokitan daude: Matxiategin, Bolun, Basalgon eta Amilagan eta Tecno-Sistem lantegiaren aurrean, esate baterako. Granittoa, marmola, burdina eta egurra erabiltzen ditu eskultoretarako, eta estilo aldetik espresionismorako joera duela diosku. Euskal kulturako sinboloek ere berebiziko garrantzia dute Balentziagaren hainbat lanetan: "Giza gorputzaren gaineko eskulturak egitea ere asko gustatzen zait, eta armarriak eta horrelakoak ere landu izan ditut. Sortze prozesuan harria apurtzea, espazioak bilatzea atsegin dut gehien". Nagusiki familia-aren Uesarri baserrian egiten ditu eskulturak. Gustuko eskultoreen artean, Oteiza aipatzen du, "espazioekin formak egiteko dohain berezia zuelako". Balentziagak badu etorkizunari begira asmo bat: "Fraisko zurin dagoen monolitoaren lekuan, eta hango materiala aprobetxatuz, pilotaren omenezko eskulturren bat egin nahi nuke".

"Sortze prozesuan harria apurtzea, espazioak bilatzea atsegin dut gehien"



ARTXIBOA

AZPEITXI

Jatetxea

Aranerreka 13 behea. Bergara
943 76 55 00

Plater konbinatuak
 Oilasko erreak eramateko

Biko
 BOKATEGIA

Simon Arrieta plaza 2A behea ezkerre.
 Tf. 943 76 71 19

Silvestre Muñoz, s.l.
 pinturak

Pintura-lanak orokorrean
 •
 Pintura industrialia
 •
 Zoru arinak: sintasolak, moĳetak...

610 25 99 82
 610 25 40 37
 943 76 24 11
 Amillaga 1, 10 pabilioia.
 20570 BERGARA

Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2003eko ekainaren 13a / 161. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com • Lege gordailua: SS1179/02

Bihar, zapatua, hartuko du Zabalo alkate kargua osoko bilkura berezian

AINTZANE IRIZAR

Zapatuan osoko bilkura berezia egingo dute, zinegotziek euren kargua har dezaten eta alkatea izenda dezaten. Bilkura horri begira, Gertu Gae plataformak prentsaurrekoa egin zuen martitzenean, eta kargua hartzera joango direla iragarri zuen.

Bihar, zapatua, egingo dute hauteskunde ondorengo lehendabiziko osoko bilkura; hantxe, aukeratuak izan diren zinegotziek kargua hartuko dute eta alkate berria izendatuko dute.

Hauteskundeok bereziak izan dira, eta osoko bilkura ere ez da ohikoa izango. Izan ere, auzitegiek ez diote laga Gertu Gae plataformari hauteskundeetan parte hartzen. Hala ere, 427 boto jaso dituzte, botoen %33, hain zuzen ere. Parte hartzen laga izan baliote, hiru zinegotzi lortuko zituzkeen hauteskundeetan.

Zerrendako lehendabiziko hiru hautagaiek, hain zuzen ere, egin zuten prentsaurrekoa.

Eguenean, bestalde, EAJ eta EA alderdietako eta Gertu Gae plataformako kideak batzarra egitekoak ziren zapatuko osoko bilkurari begira.



Zapatuan zinegotzi kargua hartzera joango direla iragarri zuten Gertu Gae plataformako kideek.

GERTU GAE-KOAK KARGUA HARTZERA Martitzeneko prentsaurrekoan azaldu zuten, bihar, udaletxera joango dira, zinegotzi kargua hartzera. Honakoa adierazi zuten plataformako kideek: "Herritarrek aukeratu gaituztenez, hautatu bezala aurkeztuko gara, gure

ordezkaritza eraginkorra izan dadin; hauteskundeak demokratikoak izan ez diren arren, herritarren hitza errespetatu eta betiko era demokratikoan eta parte-hartzailean osatzea Udala aldarrikatzen dugu". EAJ-EA koalizioari ere eskaera zehatza

egin diote: "Espainiako legedia medio lortu dituzten seigarren, zazpigarren eta zortzigarren zinegotziek kargua ez hartzea edo berehala dimititzea proposatzen diegu, Gertu Gaeren ordezkariak proportzionala ahalbideratzeko aukera izan dezagun".

HERRITARREN HITZA / Alaitz Jauregi • Langilea

Azkenian, tontuak geu

La caja tonta deitu izen jako betidanik, baina ni konbenziduta nago, tonto bakarrak geu gala, dan-danok jausten galako modurik mozu-luenian. Egixa esateko, beti gae telebistari begira eta beti kritikatzeko "ezebe eztagolako", zeinek ententitzen dau? "Nik notiziak bakarrik ikusten dittut". Notiziak? Espainia aldia hartuko dogu adibidetzat (errezena berakin sartzia dalako). Lehenengo desastria Prestige izan zan, alde danetan haura komentatzen, baina Egunkarixan itxieriak aurrekua solizionauta geratu

zan; Irakeko gerriakin, berriz, ordurarteko guztia ahaztu zan. Hori bai, onena zentzu bariko gerra honi jarri zotzen izena: "Guerra a Saddam", oso ona!!!, ez nekixen nik parian tokau ziran emakume, gizonezko, zahar, gazte eta haur danak Saddam deitzen zienik!!!! Lotsarik bez.

Notiziek ez badabe penia merezi, benga danok animalien reportajiak tragatzera.



"Beti telebistari begira eta beti kritikatzeko"

Egun bat bai, bi be bai, baina lehen etxia animaliz beteta, eta 2 hilabete besterik ikusteke.... Zaping egitten hasi biharko ga anuziua bakarrik ikusteke!!! Hori bai, "edozein duda daukanak konsultau leikioke bere farmazeutikuari". Ya esta, badakitt, diru pixkat irabazte aldera 200.000 kamara dauzkan etxe baten sartuko naiz, edo hotel baten, edo basetxe baten.

Ez, ez, onena irla batera jun, gose pixkat pasau, eta eskeleto bat bihurtzen naizenian "Noche de fiesta" ta holako programa konplikauak presentatzeko aurkeztuko naiz. Ikusten? Gainera, Operación bikini egin biharrik ez. Diru horrekin urte pila baten biziko naiz, eta jubilau orduko dana gastautu eukiko dotenez, Goenkaler sartuko naiz M^a Luisakin beste danegaittik geizki esatera. Bide batez, "Siete vidas"era publiko bezela jungo naiz ordubetez sekulako barre algarak botatzera. Eztao barre itxia moduko terapia honik eta.

LABUR

Laster botako dute maristena izandako eraikina

Aspaldi egin zuen Udalak lehenengo maristena eta gero Guraso Elkartarena izandako eraikina botatzeko proiektua, baina, bazegoen arazo bat: Iberdrolaren kable batzuk pasatzen dira eraikinetik, eta enpresa horrek eragozpenak jarri zituen kableok kentzeko. Azkenean, konponbidea topatu dute Udalak eta Iberdrolak. Datorren asterako kable horiek kenduta izango ditu Iberdrolak, eta behin hori eginda, laster eraitsiko dute eraikina.

Erretiratuendako hitzaldia egingo dute hilaren 17an

Datorren martitzenean, ekainak 17, borondatezko lanaren gaineko hitzaldia egingo dute, 18:00etan, Olaran etxean.

Nagusilan elkarteko Juan Mari Garitanok egingo du hitzaldi hori. Beharra dutenei laguntzeko borondatezko lana egiten dutenen elkarte da Nagusilan, eta elkarteko presidentea da Garitano.

Oraingo hilean egiten duten bigarren hitzaldia da. Aurretik, gazte mantentzeko aholkuak jaso zituzten Bereziartua medikuaren eskutik.

Gazte mailako futbol taldea ez da mailaz igo

Esku-eskura izan du gazte mailako futbol taldeak lehen mailara igotzeko aukera, baina azkeneko momentuan galdu egin du aukera hori. Hain zuzen ere, aurreko asteko domekan izan zuten denboraldiko azkeneko partidua. Irunen, Behobia taldearen aurka, eta 3-2 galdu zuten. Partidua irabazi beharra zuten antzularrek bigarren mailatik lehenengora igotzeko. Astebete lehenago, 4-3 irabazi zioten Behobiari etxean. Estalako futbol zelaietan.



ARTXIBOA

12:30ean eta 17:30ean dantza saioa egingo dute Herriko Plazan ume guztiek.

Umeen Dantzari Eguna ospatuko dute herrian etzi, domeka

AINZANE IRIZAR

Oinarin dantza taldeak antolatuta, Umeen Dantzari Eguna ospatuko dute etzi, domeka, Antzuolan. Herri gehienetan urtero izaten den arren egun hori, Antzuolan bi urtean behin izaten da. Goizetik hasita, egitarau zabala antolatu dute umeendako.

Inguruko herrietako 160 bat ume dantzari espero dituzte domekarako Oinarin dantza taldekoek. Bergarako Gazte-Alai, Arrasateko Lore Gazteak eta Txikitxu, Soroluzeko Urrats, Aretxabale-tako Loramendi, Oñatiko Oñatz eta Antzuolako Oinarin taldeetako umeek, hain zuzen ere, hartuko dute parte domekako jaialdian.

Herri gehienetan urtero antolatzen dute Dantzari Eguna, baina Antzuolaren kasuan, bi urte-tik behin ospatzen da egun hori. Izan ere, antolaketa lan handia eskatzen du, eta herri txikia izanik, dantza taldeko kideak ere ez dira beste herrietan adina.

Goizean goiz hasiko dituzte eguneko ekitaldiak; hamarretan, herriko txistulariek kalejira egingo dute. Kalejiraren ondoren, 10:30ean, kanpotik datozen dantzari harrera egingo diete herrikoek, eta 11:15ean, herri osoa kalejiran zeharkatuko dute talde guztiek batera.

Goiz parteko ekitaldi nagusia Herriko Plazan izango da, 12:30ean. Dantza saioa egingo dute talde parte hartzaile guztiek. Saio horren ondoren, umeak herriko hainbat etxetara eramango dituzte, bazkaltzera. Hainbat herritar azaldu da prest kanpotik etorriko diren dantzariak euren etxetan hartzeko.

160 bat ume dantzari etorriko dira domekan inguruko herrietatik

Arratsaldean, berriz, 17:30ean izango da dantza saioa, Herriko Plazan hori ere. Talde bakoitzak dantza berezi bana eskainiko du saio horretan.

EKAINEAN, HAINBAT JAI

Ekainarekin, jaien garai iristen zaigu antzuolarroi. Aurten, gainera, jai batzuk gehiago ditugu; alde batetik, aipatu bezala, Umeen Dantzari Eguna ospatuko dute hilaren 15ean. Bestetik, Ondarreko jaiak ospatuko dituzte, aspaldiko partez. Ekainaren 21erako eta 22rako hainbat ekitaldi antolatu dituzte auzotarrek, Gorpuzti-eguna ospatzeko.

Uzarragan, bestalde, San Joan jaiak ospatuko dituzte. Hilaren 22an, domeka, meza izango dute eta ondoren, dantza saioa.

San Joan bezperan, berriz, Herriko Plazan egingo dute ospakizuna: arbola jasotzea eta dantza saioa, besteak beste.

Ekainean herrian egingo diren jaiekin bukatzeko, San Pedro jaien txanda iritsiko da. Ekainaren 27tik 29ra ospatuko dituzte jaiok, Kalebarrenen.

KIROLA

Garitano, hirugarren zapatuko triatloian

AINZANE IRIZAR

Lan bikaina egin zuen Julen Garitano triatleta antzuolarrak aurreko zapatuan; hirugarren postuan sailkatu zen Debagoieneko triatloi lasterketan. Hura izan zen lasterketa horretan Antzuolako ordezkari bakarra, baina ez da herriko triatleta bakarra.

Zapatuko lasterkari guztiek aurkari gogor bat izan zuten aurrez aurre: beroa. Goizean goizetik izugarriko beroa egin zuen, eta lasterketa hasi zenerako, are eta handiagoa zen beroa. Lasterkari bat baino gehiago larri ibili zen froga amaitzeko.

Julen Garitanok, baina, lan bikaina egin zuen; hirugarren postuan sailkatu zen. Bi ordu, zortzi minutu eta 52 segundoko denbora behar izan zuen lasterketa amaitzeko.

Urkuluko urtegian hasi zuten lasterketa; kilometro eta erdi ige-

rian egin behar izan zuten hantxe. Gero, bizikleta hartu eta 40 kilometroko ibilbidea egin zuten, eta bukatzeko, hamar kilometro korrika.

Zapatuko lasterketan parte hartu zuen antzuolar bakarra Julen Garitano izan zen arren, ez da Antzuolako triatleta bakarra. Guztira, sei antzuolar ibiltzen dira Euskal Herriko duatloi eta triatloi lasterketetan, guztiak Antxintxika Debagoiena taldean; honako hauek, hain zuzen ere: Julen Garitano bera, Aitor eta Iker Larrea, Karlos Baleztena, Imanol Pildain eta Aitor Peñagarikano. Oraingo denboraldian ez dute lasterketa asko egin, baina nahiko postu onak egin dituzte: Peñagarikanok, esaterako, hamahirugarren bukatu zuen Barakaldoko duatloia; Aitor Larreak, berriz, bederatzigarren egin zuen Oñatikoan.

Hurrengo lasterketa Zarauzkoa izango dute antzuolarrek, bihar, zapatua.

LABUR

Uxue Arregik Euskadiko Gimnasia Erritmikoko Txapelketa irabazi du

Aurreko domekan, ekainak 8, jokatu zuten Gimnasia Erritmikoko Euskadiko Txapelketa Donostian. Gazte mailan, Uxue Arregi antzuolarrak irabazi zuen txapelketa; Maialen Toledo laugarren postuan sailkatu zen eta Iraitz Gastiain, berriz, bosgarren. Bina saio egin behar izan zituzten hirurek; uztaiarekin bata eta zintarekin bestea.

Kadete mailan ere izan genuen ordezkariarik: Maialen Legorburu antzuolarrak hartu zuen parte txapelketan, eta hirugarren postuan sailkatu zen. Hark ere bi saio egin zituen, mazoekin eta uztaiarekin.

Aurreko zapatuan hasi zituzten Peña Aiastuik antolatutako bizikleta probak

Ekainaren 7an egin zuten lehenengo bizikleta proba, erlojuz kontrako Iralarako igoera, hain justu. Hodei Arregi (03:30) infantila izan zen lehenengoa. Benjamin mailan, berriz, Jon Madariagak (05:19) irabazi zuen lasterketa. Bihar, zapatua, Uzarragako igoera jokatu dute eguerdian. Hilaren 21ean eta 28an, gimkana jokoa egingo dituzte Ondarren eta Zurrategin. Uztailaren 6an, azkenik, San Martzialerako igoera jokatu dute.

SUKALDEKO ALTZARIAK
Harizki

MUEBLES IGEA

Sukalderako eta bainurako altzariak
Altzari rustikoetan espezializatuak

DEKORAZIOA
ABAD
PINTURAK
ANTZUOLA
PAPER PINTATUAK

Jose Gomez Abad

Errekalde 6, 4-B.
Antzuola
943 76 60 19
943 76 60 43
Faxa:
943 76 60 19

INDUSTRI MANTENIMENDUA

Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2003eko ekainaren 13a / 145. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Irati Agirreazaldegi • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com • Lege gordailua: SS475/95

Zazpi zinegotzik udalbatza berria osatuko dute biharko bilkuran

IRATI AGIRREAZALDEGI


Udalbatza berria bihar eguerdian osatuko da. Sei zinegotzik eta alkateak hartuko dute kargua bertan. Oraindik ikusteko dago herritarren botoen arabera plataformari dagokion zinegotziak kargua hartuko duen edo bi alderdik jardungo duten Udalean.

Bihar, zapatua, udalbatza berria eratuko dute eguerdiko hamabietan hasiko den osoko bilkuran. Hain zuzen ere, alkateak eta zinegotziek euren karguak hartuko dituzte.

Aurten hauteskundeak bereziak izan direla kontuan hartuta, baliteke udalbatza osatzeko orduan tirabirak sortzea. Izan ere, baliogabe bezala zenbatu ziren botoak kontatuz gero, Elgeta Auzolanian plataformak zinegotzi bat izango luke, baina legez bat bera ere ez dagokio.

Aralarko ordezkariak zera esan dute: "Herritarren iritzia errespetatuko dugu. EAJ-EAk eta Aralarrek hiruna zinegotzi eta plataformak bat izatea".

Plataformako kideak ere iritzi berekoak dira eta ahalegina



Orain arte EAJ-EA koalizioako lau ordezkariak eta Euskal Herritarrok alderdiko hiru zinegotzik osatu dute udalbatza.

egingo dute eurei dagokien zinegotziak kargua har dezan.

EAJ-EA koalizioak esan digunez, berriz, legez lau zinegotzi dagozkio, eta zapatuan laurak joango dira kargua hartzera.

GOBERNU BATZORDEA

EAJ-EAk Gobernu batzordea elkarrekin osatzeko proposamena egingo dio Aralarri, baina programa elkarrekin adostea jarri dute baldintza bezala. Aralarrek

Udalaren funtzionamenduaren gaineko akordioa egitea eta boto kopuruaren arabera batzorde banaketa jarri ditu lehentasunen artean, eta gero etorriko litzateke programa bateratua.

HERRITARREN HITZA / Maria Elena Estenaga • Liburutegiko arduraduna

Basta ya

Irakurtzeaz bat pentsatuko du norbaitek politikaz jardun behar dudala. Izan ere, giroa ez da makala. Hala ere, emakumeek bizi duten egoera jasanezinak ekarri nau lerro hauek idaztera. Gizarte hau progrea eta garatua dela esango dute batzuk gainera! Ustez, erakundeek lortua zuten emakumeen tratua txarren gaineko gaia leuntzea. Baita zera ere! tratua txar psikiko eta fisikoaren berriak datozkit nonahitik: "Bost emakumeek jasan dituzte tratua txarrak eta horietako hiru haurdun zeuden" diote egunkariak.

Heziketa da aldatu behar dena, baina ez emakumeena. Epailak eta erakundeek dute zer ikasia. Zertarako sortu emakumeendako gizarte zerbitzuak, etxebizitza seguruak, haurtzaindegiak... zertarako lagundu emakumei beldurak uxatzen erasotzailea denuntziatzeko. Zertarako lagundu indartsuak eta kontsulentek izaten beraien ekintzekin. Zertarako hau



"Ordua da emakumea bizi sortzaile moduan onartzeko"

guztia gero epailak ez badute atxilotzen behin eta berriz delitua egiten duen hori. Badira kasuak 20 aldiz denuntzia jarri arren ere aske utzi eta berriz intziditzen dutenak erasotua hil arte.

Zer da emakumea, bigarren mailako izakia edo? Edo terrorismoagatik hildakoak baino garrantzia txikiagoa dute ba? Etxeko biolentzia edo genero biolentzia deitutakoak hildako gehiago eragiten ditu

terrorismoak baino, hala ere, batoren neurriak eta bestearnak ez dute antzik. Askoz gogorragoak dira terrorismoari lotutakoak nahiz eta odolik ez egon tartean (hara hor EGUNKARIAREN kasua). Gainera zigor guztia betetzera egoten dira lotuak gaixotasun larriak izan arren ere. Zergatik hau guztia jasan? Ordua da emakumea den moduan onartzeko, bizi sortzaile moduan. Izan ere, bera baita gizartearen etorkizunerako oinarri garrantzitsua. Horregatik diot: ASKI DA! Emakumeak merezi du erakundeetatik ematen zaion tratua baino hobea.

LABUR

Aerobik ikastaroa astelehenetan eta eguaztenetan

Martitzenetan eta eguaztenetan lehen aerobik ikastaroa, eta orain astelehenetan eta eguaztenetan aldatu dute. Ordutegia, edozelan ere, lehengo izango da: 19:00etatik 20:00etara, alegia. Joan den apirilean jarri zuen abian Udaleko Kirol Zerbitzuak elgetarren egoera fisikoa hobetzeko programa. Interesatuak izenabizenak, adina, telefonoa eta egindako aukera udaletxean jakinarazi beharko dituzte ikastaroa hasi nahi duten hila-betea baino lehen.

Begirale bi behar ditu Udalak aisialdi programarako

Elgetako Udalak 3 eta sei 6 arteko umeendako aisialdi programa antolatu du, eta Elgetako txikienekin uztailaren 7tik 24ra bitartean lan egiteko begirale bi behar dira. Begiraleek titulua eduki edo aisialdi programetan jardundakoak izan beharko dute. Bestela, irakasle ikasketak eginda izatea edo egiten ibiltzea ere onartuko dute. Interesatuak Udaleko Kirol Zerbitzura deitu behar dute ekainaren 18a (eguaztena) baino lehen.

1945ean jaiotakoekin kinto bazkaria domekan

Ekainaren 15ean, domekan, kinto bazkaria egingo dute 1945ean jaio eta orain 58 urte dituzten gizon eta emakume elgetarrek. Guztira 24 lagun inguru elkartzeko dira bazkaltzeko. Urtero elkartzeko dira kintoak Elgetan, eta bazkari baten bueltan garai batean egiten dute berba. Hor-taz, Elgetatik kanpo edo herrian bertan bizi diren elgetarrek Ostatu jatetxean izango dute hitzordua domeka eguerdian.

'EGUNKARIA'

Kirol jaia eta kontzertua antolatu dituzte egunkari berriaren alde

I.A.
Euskaldunon Egunkaria itxi ostean Elgetan sortutako Egunkaria-ren aldeko batzordeak kirol jaialdi berezia antolatu du bihar. bertan herriko kirolariak hartuko dute parte eta batzen den dirua euskarazko egunkari berriaren proiekturako izango da.

Beatriz Zabalondo Berria egunkari berriko langile elgetarrak proiektuaren alde emandako urratsak eta aurrera begirako asmoak azaldu zituen martitzenean prentsaurrekoan. Bide batez, Elgetako batzordeak bihar-ko Egunkaria-ren aldeko jaialdiaren berri eman zuen. Bihar, zapatua, 20:00etan, hainbat urtean kirolean jardundako elgetarrak lehian ipiniko dituzte: futboleak, Realzaleen eta Athleticzaleen arteko penalti jaurtiketa izango da; saskibaloian, taldea sortu zutenen eta gaur egun bertan dihardutenen arteko desafioa; txirrindularitzan, amatour mailara iritsitako herritarrek jardungo dute; pilo-



Herriko kirolari ezagunak egon ziren kirol jaialdiaren aurkezpenean.

tan, herriko pilotari onenak izandakoek; eta herri kiroletan, goiko kalekoek beheko kalekoen kontra egingo dute desafioa. Proba guztiak frontoian izango dira. Gaueko hamaiketan, berriz,

Ostiada Oi! eta Punteroi taldeen kontzertua egongo da gaztetxean eta 23:30ean, bolo tiraldia egingo dute kiroldegian. Jaialdian jasotzen den dirua egunkari berriaren alde izango da.

JAIK

Kabaret ikuskizuna jaiak aurkezteko

I.A.
Elgetako Azoka Nagusiko jaiak uztailaren 3tik 6ra bitartean ospatuko dira aurten. Aurrez, ordea, Jai batzordeak programaren aurkezpen ekitaldia egingo du Espaloia kafe antzokian. Horretarako, kabaret ikuskizuna antolatu dute ekainaren 20an.

La primera vez kabaret ikuskizunarekin aurkeztuko du ekainaren 20an, egubakoitzean, aurtengo jaietako programa Elgetako Jai batzordeak. Musikan eta probokazioan oinarritutako antzezlanaren gai nagusia lehenengo harreman sexuala da.

Amaieran xanpainarekin topa egingo dute Espaloia kafe antzokira gerturatzen diren elgetarrek. Sarrera doan izango da, baina gonbidapenak aurrez jaso beharko dira udaletxean.

Jaietarako prestatutako programan hainbat ekitaldi dago: jaietako lehen eguna, eguna, Elgeta tropikala izendatu dute. Hain justu, pamelak, koloreetak alkandorak eta hawaiiarren


gonak janzteko gonbita egiten die batzordeak herritarrei.

Kale antzerkiak, dantzarako musika, gaztetxeko kontzertuak, herri kirolak, bertso eta musika ikuskizuna, pilota, feria, zezenak eta galtzontzilo eta kulero lasterketa dira, besteak beste, nagusiendako antolatutako ikuskizunak. Txikiendako, berriz, gaztelu puzgarriak eta antzerkia egongo dira, besteak beste.

Ekitaldi nagusia danborrada izango da. Umeek eta nagusiek batera jardungo dute eta Elgetako himnoa estreinatuko dute.

Horren harira, orain arteko Jai batzordeak aurten agur esango du, baina jaien oroitzen ona izatea da haren asmoa. Hortaz, herritarrei ekitaldietan parte hartzeko dei egin nahi die.

Bestalde, Udaletik esan digutenez, Azoka Nagusiko jaietan lan egiteko jendea behar da: hiru lagun kaleak garbitzeko, beste bi azokako postuak jartzeko eta lau postuok kentzeko. Kale garbitzaileek 275 euro jasoko dituzte ordainetan. Izena Elgetako udaletxean eman behar da ekainaren 20a baino lehen.



Elgetarrak txapel-dun

Debagoieneko kirol txapelketa zirkuituaren barruan jokatu den esku pilotako lau t'erdiko torneoak eman du berea. Joan den zapatuan jokatu ziren finalak Elgetako pilotalekuan. Elgetarrak hasieratik aurreratu ziren markagailuan, eta bergararrak gerturatu egin ziren arren, Peñalver eta Ibarluzea 22-17 nagusitu ziren Oruesagasti eta Larrañaga bergararren aurkako lehian. Herritarrek nagusitasuna erakutsi zuten Elgetako pilotalekuan. / I.A./ ARGAZKIA: LUGARTEBURU.

LABUR

Bolinaga eta Elortza dantza askean bigarren

Bergarako Mendekoste jaietan Euskadiko Dantza Askeko Txapelketa jokatu zen domekan. 15 urtez azpiko 14 bikotek jardun zuten lehian. Bikote bergarar batek irabazi zuen txapelketa eta Iart Bolinaga eta Andoni Elortza elgetarrak bigarren izan ziren. Baina txapelketako bigarren saria ez eze, beste aipamen bat ere merezi izan zuen bikote elgetarrak; izan ere, Abarka elkarteak jantzi egokienarendako saria ere eman zien elgetarrei.

DEPILAZIOA LASER BIDEZ

Erizaina: Sonia Simón
OLT: Iratxe Aiarzaga
Medikua: Gabriel Hernández

SAIOA ARANZABAL MASAJEAK

ELGETAN, DOMINGO ITURBE 10ean

Kiromasajea • Reflexologia • Hidromasajea • Kirol masajea • Solariuma • Drenaje linfatikoa • Algekin eginko estalkia

Dei ezazu 646 50 00 29 telefonora ordua eskatzeko



Jesus Mari Montiel ITURGINTZA ETA BEROGAILUAK

Artetale 3
Mo: 656783299 Eibar
Tel: 943 70 07 19

KONPONKETAK SUKALDE ETA BAINUGELETAN

BOLATOKI

Taberna

Eguneko menua

Asteburuan menu bereziak, ospakizunak eta agur-afariak

Karta enkarguz

Artetale 2, ELGETA. 943 76 82 84

ERRETRATUZAHARRA

ANTZUOLA

Udaleku
Irekiak, 1988ko
uztailean

Aspalditik egiten dira Udaleku Irekiak herrian. Oraingo astean, 1988ko uztailearen 14an ateratako argazkia dakarkizuegu. Herriko jaietako lehen eguna zen eta udalekuetako azkeneko eguna. Egun berezi hura ospatzeko, Indio Eguná antolatuta zuten eta txokolate jana izan zuten. Hona hemen argazkian azaltzen direnak:

Taldetik aldentuta, Gorka Jauregi.

Goian, zutik, ezkerretik eskumara: Nerea Santa Cruz, Nerea Núñez, Erika Fernández, Leire Larrea, Uraitz García, Larraitz Berraondo, Maialen Madariaga, Eneko Iturbe eta Cynthia Fresno.

Jarrita, ezkerretik eskumara: Usoa Agirre, Larraitz Lizarralde, Eneida Iturbe, Maripi Laskurain, Amaia Narbaiza, Mikel Urtzelai eta Beñat Etxeberria.

Lurrean, ezkerretik eskumara: Josune Peñagarikano, Maripi Jauregi, Jon Iturbe, Miren Gurutze Anduaga, Xabier Azkarate eta Maitane Goñi.

Argazkia: Maripi Laskurain eta Eneida Iturbe



ADI, IRAKURLE!


Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zatorz BERRIGARAra (Irizar jauregia, Barrenkalea 33) edo Elgetako kultura etxera. Zain gaituzu!

NOLAALDATUDIRENGAUZAK

ANTZUOLA

Anbulatorio
ingurua

Herriko beste hainbat tokitan bezala, anbulatorio inguruan ere hainbat lan egin dituzte azkeneko urteotan. Oraindik ere lan horiekin jarraitzen dute, irisgarritasun planari jarraituz. Igogailua jartzeko lanekin eta komunak eraberritzen dabilta momentu honetan. Sagasti eta Aiherra batzen dituen errepideak ere itxura berria eman dio anbulatorio inguruari.



1998 Eskailerak zeuden anbulatoriora igotzeko, eta mugikortasun arazoak zituztenendako ez zen lan erraza medikuarenera joatea.



2003 Azkeneko urteotan hainbat lan egin dituzte anbulatorio inguruan; orain, esaterako, igogailua jartzeko lanekin dihardute.



umelaga

JATETXEA

60 urte zuen zerbitzura!

San Antonio 5. BERGARA. 943 76 20 21



**DEBA
GARAIA**

INMUEBLE ETA FINANTZA
AGENTZIA

Bergara / Arrasate / Elgoibar
Teleforo Aranzadi 2 behea
943 76 21 80 / 943 76 06 37

**ETXAGI
JATETXEA**

AFARIAK, BATAIOAK,
JAUNARTZEAK,
EGUNEROKO MENUA,
GOSARIAK,
BAZKARIAK...

Masterreka, 8
BERGARA
943 76 53 12




gizon & emakume

Barrenkalea 35
BERGARA



**Pelikula on bat
ikus nahi dut!**



IRALA
VIDEOMATIC Plus Bideoak

Simon Arrieta 4. Tel.: 943 76 21 81. Faxa: 943 76 73 33.
video_irala@infonegocio.es



SAN MARTIN ESKOLA EUSKAL ASTEA 2003

Honekin, zazpi ikasturte izango dira udako oporrak hartu aurretik Euskal Astea ospatzen dugula. Hainbat jarduera burutzen ditugu, eta denek euskal kulturarekin lotura zuzena dute. Helburua hauxe da: euskal kulturako jarduerak era atseginean eginez, kultura honen ezagupena zabaldu eta afektiboki euskal kulturarekin oroitzapen positiboa izan.



- EGITARAUA**
- **Ekainak 13:** txupinazoa, pregoia, horma-irudiak.
 - **Ekainak 16:** bertsoak, abestiak eta olerkiak.
 - **Ekainak 17:** Pilota Txapelketako finalak.
 - **Ekainak 18:** jolas tradizionalak, ipuinak, igarkizunak, txistekak.
 - **Ekainak 19:** euskal dantzak.
 - **Ekainak 20:** txangoa.

SAN MARTIN - IPINTZA - M. ALTUNA
BERGARAKO IKASTETXE PUBLIKOAK

RKUZ

GRUPO

1950-2003

Zure etxea da



Araba etorbidea 20
Tel./Faxa: 943 79 23 51
ARETXABAETA



Araba Etorbidea 5
Tel./Faxa: 943 79 41 82
ARRASATE



Mitarte 3
Tel./Faxa: 943 77 04 55
ARETXABAETA



Andamari auzunea 1
Tel./Faxa: 943 79 10 97
ARETXABAETA

